



# GIZARTE ETA KULTURA- INGURUNEA IKERTZEKO TAILERRA

derrigorrezko bigarren h.

# 26

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA




GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Aukerako Jakintzagaia

# CURRICULUM-MATERIALAK



## Gizarte- eta kultura- ingurunea ikertzeko tailerra

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa

José María Millán Estébanz  
José Miguel Cristóbal Fraile

## **BILDUMA «CURRICULUM-MATERIALAK»**

### **26. GIZARTE ETA KULTURA - INGURUNEA IKERTZEKO TAILERRA**

Egileak:

**José Miguel Cristobal Fraile**  
**José María Millán Estébanez**

- Argitaldia:** 1997ko Maiatza
- © Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- Argitaratzailea:** Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendaritza  
Duque de Wellington, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz
- Argitaldiaren  
arduraduna:** Euskal Herriko Curriculuma Eratzeko eta Irakasleen  
Prestakuntzarako Institutoa  
Andalucía, 1 Kalea - 48015 Bilbao
- Imprimaketa:** Lankopi  
Colón de Larreategui, 16 - 48001 Bilbao
- ISBN:** 84-89845-91-3
- Depósito Legal:** BI-802-97

# AURKIBIDEA

## I. ZATIA: TAILERRAREN EGITURA DIDAKTIKOA

1.- SARRERA .....	1
2.- HELBURU OROKORRAK.....	5
3.- FAMILIAREN HISTORIAKO TAILERRA .....	6
3.1.- ZENTZUA ETA IKUSMOLDEA .....	6
3.2.- KONTZEPTU-MAPA: FAMILIAREN HISTORIAKO TAILERRA .....	7
3.3.- EDUKIAK .....	8
4.- SOZIOLOGI TAILERRA .....	9
4.1.- ZENTZUA ETA IKUSMOLDEA .....	9
4.2.- KONTZEPTU-MAPA: SOZIOLOGI TAILERRA .....	10
4.3.- EDUKIAK .....	11
5.- ORIENTABIDE DIDAKTIKOA .....	12
5.1.- SOZIALIZAZIO-TEKNIKA ETA -IRIZPIDEAK .....	13
5.2.- LANKIDETZA-IKASKUNTZA .....	14
5.3.- INGURUNEA IKERTZEKO METODOA .....	16
5.4.- BALIABIDE METODOLOGIKOAK .....	20
5.4.1.- LANDA-LANAK .....	22
5.4.2.- IKERKETA SOZIOLOGIKORAKO TRESNAK.....	23
5.4.2.1.- IDEIA-ZURRUNBILOA.....	23
5.4.2.2.- EZTABAIDA-TEKNIKAK .....	25
5.4.3.- KONTZEPTU-MAPAK .....	27
5.5.- MATERIALAK ETA BALIABIDEAK.....	33
6.- EBALUAZIOA.....	35
6.1.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.....	35
6.2.- PROIEKTUAREN EBALUAZIOA .....	37
6.3.- EBALUAZIORAKO TRESNAK .....	40
7.- GIZARTE- ETA KULTURA-INGURUNEA IKERTZEKO TAILERRARAKO BALIABIDEAK .....	53
8.- BIBLIOGRAFIA .....	54
9.- ERASKINA.....	56

## II. ZATIA: PROIEKTU DIDAKTIKOA

PROIEKTU DIDAKTIKOA: “NEURE HISTORIA ETA NEURE FAMILIARENA” .....	60
1.- SARRERA.....	61
2.- HELBURU DIDAKTIKOA .....	62
3.- EDUKIAK.....	63
4.- METODOLOGIA, IKERKETA-PROZESUA ETA EKINTZAK .....	64
4.1.- ELKARRIZKETAREN TEKNIKAK .....	64
4.2.- GALDEKETAREN TEKNIKAK .....	68
5.- NORBERAREN NORTASUNA .....	71
5.1.- NEURE LEHENENGO URTEAK.....	74
5.2.- NEURE LEHENENGO URTEETATIK GAURDAINO .....	76

<b>6.- JOLASAK, JOSTAILUAK ETA KIROLAK .....</b>	<b>77</b>
<b>6.1.- NEURE AITAREN, AMAREN, AITONEN ETA AMONEN</b>	
<b>JOLASAK.....</b>	<b>79</b>
<b>7.- FAMILIAREN GENEALOGI ZUHAITZA .....</b>	<b>82</b>
<b>8.-LANBIDEEN BILAKAERA NEURE FAMILIAREN HISTORIAN .....</b>	<b>87</b>
<b>PROIEKTU DIDAKTIKOA: “POPULAZIOA, EKONOMIA ETA ENPLEGUA</b>	
<b>NIRE HERRIAN” .....</b>	<b>93</b>
<b>1.- SARRERA .....</b>	<b>94</b>
<b>2.- ALDEZ AURREKO EZAGUTZEN MIAKETA.....</b>	<b>94</b>
<b>3.- HELBURU DIDAKTIKOAK .....</b>	<b>96</b>
<b>4.- EDUKIAK .....</b>	<b>97</b>
<b>5.- IKERKETAREN FASEAK .....</b>	<b>98</b>
<b>6.-EUSKAL HERRIKO POPULAZIOARI, EKONOMIARI ETA</b>	
<b>ENPLEGUARI BURUZKO DATU INTERESGARRIAK .....</b>	<b>100</b>
<b>7.- POPULAZIOARI BURUZKO EKINTZAK.....</b>	<b>102</b>
<b>8.- EKONOMIA ETA ENPLEGUARI BURUZKO EKINTZAK.....</b>	<b>103</b>

## **I. ZATIA: TAILERRAREN EGITURA DIDAKTIKOA**

## 1.- SARRERA

Sozializazioa Hezkuntzaren funtsezko helburuetariko bat da. Sozializazioa gizarteratze eta gizarteko partaidetza aktibo eta kritiko gisa ulertzen da. Horrela, gizartearen pixkanakako transformazio eta hobekuntza bilatzen da.

Helburu hau bete ahal izateko (beste hezkuntza-xede batzuekin batera), Ikastetxeek inguruko eta parte hartzen duteneko bizi-errealitatean murgilduta egon eta errealitate honekiko sentikorrek izan behar dute, bere arazoekin enpatizatuz eta bere eskariei erantzuten saiatuz. Ikastetxeak eguneroko bizitzako arazoan aurrean erabilgarritasun eta funtzionaltasunik erakusten ez duen jakintza “ofizial” eta akademizista baten bidetik abiatzen badira, lortu nahi den sozializazioa eta bestelako hezkuntza-helburuak arriskuan jarriko dira.

“Gizarte- eta Kultura-Ingurunea Ikertzeko Tailerra”, beste irakaskuntza-arlo batzuekin batera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloko ikasleen sozializazioan eta, oro har, hauen osabetezko heziketan laguntzeko aukera paregabea da.

“Gizarte- eta Kultura-Ingurunea Ikertzeko Tailerra” izenak berak nortasun propioa duen hezkuntza-jakintzagaia dela, bere ikaskuntza-esparrua ohiko ikasgela ez dela, ikerketa-jardueraz betetako irakatsi eta ikasteko prozesua eskola magistraletik eta testuliburutik urrun dagoela eta bere ezagutza-helburua, jakina, gizarte- eta kultura-ingurunea dela iradokitzen digu.

Gizarte- eta kultura-ingurunearen kontzeptuak pertsona bera du erreferentzi puntu. Hurbil sentitzen eta hautematen den gizarte- eta kultura-ingurunea da, ingurune fisiko eta naturalarekin oso lotuta dagoena eta ingurune honen eragina jasotzen duena. Izan ere, ingurune fisiko eta naturala gizarte- eta kultura-mailan egituratuta dagoela egiazta daiteke.

Nortasuna, sozializazioa eta hauteman eta jarduteko gaitasuna gero eta alor zabalagoetan arian-arian garatzeak, ingurunearen kontzeptua denboran eta espazioan zabaltzea dakar.

Ingurunearen ikuspegi “lokalista” batez ohartarazi beharra dago; izan ere, beste eragin-faktore batzuen artean garraiabideek eta, batez ere, komunikabideek eta informazioaren teknologia berriek garai batean denboran eta espazioan urrun genituen eta gaur egun hain hurbil ditugun (gure “inguruaren”, hots, gure ingurunearen osagai izatera ere iritsi dira) gizarte- eta kultura-ingurunearen errealitateetara hurbiltzen gaituzte.

Gure gizarte- eta kultura-ingurunea berariazko problematika eta ezaugarriak dituen Euskal Herriko Gizartean murgilduta dago eta Tailerra honek, problematika eta ezaugarri horiei hezkuntza-mailan erantzun behar izateaz gain, hauekiko sentikortasun berezia azaldu behar du. Euskal kulturaren egoera eta etorkizuna, indarkeria eta gizarte-gatazkak bezalako errealitateak, sistema ekonomikoan gertatzen diren aldaketak, gizarte industrial batetik zerbitzu-sektorea gero eta garrantzitsuagoa deneko gizarte baterako bilakaera, lan-merkatuaren eskari berriak, langabeziaren fenomenoak, aisialdirako modu berriak, balore-eskalan eta bizimoduetan gertatzen diren aldaketak, gizarte-bazteketa,

drogomenpekotasunak... besteak beste Tailerra honetan landu eta ikertu beharreko edukietariko batzuk izango lirateke zalantzarik gabe. Eduki hauek aldeztu aurretik irakasle-taldeak Curriculum-Proiektuan finkatu eta ikasgelaren programazioan zehaztu beharko dira, ikasleek adierazten dituzten interesen arabera.

Gizarte- eta Kultura-Ingurunea Ikertzeko Tailerrak, ingurunean sartzeko eta bertan esku hartzeko duen bokazioari jarraiki, ikasleentzat oso garrantzitsuak izan behar duten eta ikasleen itzaropenei, kezkei eta gizarte- eta kultura-ingurunearen errealitatea ezagutu, ulertu, interpretatu eta bertan esku hartzeko beharrei lotuta egon behar duten hainbat eduki izango ditu. Horrela, gizarte- eta kultura-ingurunea azterketa eta ikerketaren xede izateaz gain ikaskuntzaren funtsezko elementu motibagarri eta indartatzaile izango da.

Eduki nagusiak –kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak– helburu orokorretan aurreikusitako gaitasunak garatzeko jardueren bidez landuko dira. Ildo honetan, kontzeptuak gizarte- eta kultura-errealitatearen ezagutza, ulermen, interpretazio, analisi eta abarri buruzkoak izango dira nagusiki; prozedurek berriz, behaketa, miaketa, datu-bilketa, ondorio eta abarren bitartez ikerketa-metodoa jarriko dute praktikan; eta azkenik, jarrerak, beti sozializazioarekin lotuta, hainbat baloretan heziko dituzte ikasleak, hala nola lankidetzan, elkartasunean, kritika konstruktiboan, sentikortasunean eta abar.

Tailerra honetako funtsezko edukiak prozedurak eta jarrerak badira ere, kontzeptuek sekuentzia didaktikoaren “eduki antolatzaile” izateko zeregina betetzen dute eta horregatik soilik adierazi ditugu lehenik.

Orientabide gisa, Gizarte- eta Kultura-Ingurunea Ikertzeko Tailerraren funtsezko edukiak biltzen dituzten “Familiaren Historiako Tailerra” eta “Soziologi Tailerra” proposatzen dira. Familiaren Historiako Tailerrak, Lurralde Historikoaren eta Euskal Herriaren testuinguruan, herriko historia eta espazio horretako denbora historikoa aztertuko ditu norberaren eta familiaren historiatik abiatuta. Soziologi Tailerra berriz, orainean formulatuta egongo da eta gizarte- eta kultura-espazioaren azterketa eta ikerketa bat garatuko du. Amaitzeko, bi proiektu didaktikoren adibide praktikoak emango dira (bakoitza Tailerra bati dagokio).

Hortaz, Ingurunea Ikertzeko Tailerra gizarte- eta kultura-ingurunearen errealitateen elkargune eta ikerketa-esparrua izango da eta, bertan, kontzeptu, teknika, prozedura, jarrera eta lan- eta ikerketa-jarduerak agertu eta elkarrekin erlazionatzen dira.

Gizarte- eta kultura-ingurunearen ikerketa disziplinar-tekoa izango da erabat. Dena den, Gizarte-Zientzien, Geografiaren eta Historiaren agerpena etengabea izango da.

Tailerra honetan, hezkuntza-jardueretan ahalik eta metodologia- eta antolamendu-baliabiderik gehien erabil daitezkeen proposatzen da, hau da, aniztasun metodologikoak ikasleen hezkuntza-beharren aniztasunari tratamendu egokia emateko funtsezko elementuetariko gisa duen ontasuna argi eta garbi adierazten da.

Ikerketa-metodoa, bere funtsezko “problemaren planteamendua-hipotesia-ikerketa-baliozkotzea” faseekin, Tailerra honetako irakatsi eta ikasteko prozesuan funtsezkoa da




eta, antolamenduaren ikuspegitik, zeregin hau ahal den neurrian lankidetzataldeko lan-esparruan burutuko litzateke biribiltasun berarekin.

Ebaluazio-irizpideek Tailerrako oinarrizko ikaskuntzak agertzen dituzten jarrerak zein diren adierazi eta helburu orokorretan aurreikusitako gaitasunen garapena berresten dute.

Bi material-mota desberdin barne hartu dira; irakasleari zuzendutakoak I. Zatian agertzen dira, eta ikasleei zuzendutakoak, II. Zatian.

**KONTZEPTU-MAPA: GIZARTE- ETA KULTURA-INGURUNEA IKERTZEKO TAILERRA**



## 2.- LEHENENGO ZIKLOKO HELBURU OROKORRAK

Tailerra honek jarraian adieraziko ditugun gaitasunak ikasleengan garatzen lagunduko du:

1. Inguruneko gizarte- eta kultura-arazo garrantzitsuak identifikatu eta analizatzea.
2. Gizarte- eta kultura-inguruneko egoera problematikoaren aurrean (lanekoak, ekonomikoak, familiakoak, humanitarioak...) soluzioak eta soluzio-alternatibak bilatzea.
3. Euskal kultura tradizionalen ohiturak, jarrerak, baloreak eta ezaugarri orokorrak identifikatzea eta kritikoki baloratzea, Euskal Herriko gizarte eta kulturaren egungo aniztasuna aberastasuntzat hartuz eta honen kontserbazioan parte hartzeko konpromisoa hartuz.
4. Gure gizarte- eta kultura-inguruneari buruzko ikerketa txikiak egitea, hainbat baliabide erabiliz: "V" heuristikoa, inkestak, landa-lana, dokumentazio-jarduerak eta abar.
5. Egungo gizarteko jarrera, mekanismo, balore eta pentsamoldeak kritikoki interpretatzea (herritarren eskubide eta betebeharreri dagozkienak bereziki), beste garai eta leku batzuetako ereduarekin kontrastatzea eta balio erlatiboa duen eta etengabeko berrikuspenera jarrita dagoen kultur eta gizarte-prozesu luze baten emaitza gisa azaltzea.
6. Talde-lanetan parte hartu eta lankidetzaz-jarduerak egitea, dagokion rola bere gain hartuz eta elkarrizketa, tolerantzia, lankidetzaz, elkartzun, kritika konstruktiboa eta abarreko jarrerak garatuz.
7. Gatazka dagoela onartu eta desberdintasunak gainditzeko mekanismo demokratiko gisa eta taldearen barruko aldaketa-faktore gisa erabiltzea.
8. Gizarte- eta kultura-ingurunearen elementuetan denborarekin izan diren aldaketa eta transformazioak antzematea, aldaketa horien aldiberekotasun- eta segida-erlazio batzuk bilatzea eta kontzeptu hauek beste garai historiko batzuen ezagutzan aplikatzea.
9. Testu, dokumentu eta komunikabideetako informazioa lortu eta interpretatzea, analisi autonomo eta kritikoa eginez eta ikaskideei informazioa argi eta ordenatuta emanaz.
10. Egungo kultur eta komunikazio-korronteak homogenotu eta estandarizatzeko joerak kritikoki baloratzea.
11. Gizarte-talderik kaltetuenera arazoenganako interesa eta sentsibilitatea azaltzea, norberaren jarduketan eremu libre eta pertsonalean erantzukizun- eta elkartzun-jokabideak hartzea erraztuko duten jarrerak garatuz.

## 3.- FAMILIAREN HISTORIAKO TAILERRA

### 3.1.- ZENTZUA ETA IKUSMOLDEA

“Familiaren Historiako” tailerra ikasleak bere jatorri historikoa eta bere familiarena bilatzeko esparrua izango da. Horretarako, ikasleak bere iragana berri eta bere eta bere familiaren nortasuna aurkitzeko etorkizunerako prospekzio bat egingo du.

Azterketa eta ikerketaren xedea famili ingurunea denez gero, ikasleen interes eta kezkekiko hurbiltasuna nabarmena izango da eta honek norberaren historia jakin, ezagutu eta ikertzeko motibazioa piztuko du.

“Denbora”, “aldaketa”, “iraunkortasuna”, “senidearteko harremanak” eta “historia” kontzeptuak funtsezkoak izango dira Tailerra honetan.


Irakatsi eta ikasteko prozesua, historialariaren metodologiara hurbiltzea erraztuko duen eta norberaren ezagutzan eta sozializazioan asko lagunduko duen ikerketa-giro batean garatuko da.

Norberaren eta familiaren historia ikertzerakoan, ikasleek hainbat iturri erabiliko dituzte: ahozkoak, hots, lan-mundu, etxebizitza, arropa, garraio, ohitura, gertaera historiko eta abarren bilakaerari buruzko bizipen eta jakintzak jasoko dituzten senide desberdinekin (birraitona-amonekin edo aitona-amonekin –kasuak kasu– hasi eta bilobekin amaituz) egindako elkarrizketak eta hauen iruzkinak; idatzizkoak, hots, famili liburuak, gomutagarriak, egunkari eta aldizkari zaharrak, parrokiako eta herriko artxiboak; eskola-liburu eta -koadernoak; ikonografiak, argazkiak, koadroak, jostailuak...

Interesgarria izango litzateke familia Tailerra honen hezkuntza-garapenean inplikatzeko. Helburuak, asmoak eta jarduera nagusiak azaltzeko gurasoekin alde aurretik egindako bilera bat oso abiapuntu ona izango litzateke tailerraren arrakasta pedagogikoa errazteko.

Tailerraren hezkuntza-prozesuak hogeita bost ordu inguruko iraupena izango duela aurreikusten da.

### 3.2.- KONTZEPTU-MAPA: FAMILIAREN HISTORIAKO TAILERRA



### 3.3.- EDUKIAK

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>. Denbora historikoa: iragana, oraina, etorkizuna.</li> <li>. Norberaren historia.</li> <li>. Historialariaren metodorako hurbilketa: ahozko iturriak, idatzizkoak, grafikoak...</li> <li>. Familiaren historia.</li> <li>. Familiaren friso historikoa.</li> <li>. Zuhaitz genealogikoa.</li> </ul>	<p><b>Problema eta hipotesien formulazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Bizitzako eta historiako alderdiak aukeratzea.</li> <li>. Norberaren eta familiaren bizitzari buruzko ikerketa egitea.</li> <li>. Jarraitu beharreko ikerketa-faseak eta erabili beharreko baliabideak formulatzea.</li> </ul> <p><b>Informazioaren bilaketa eta tratamendua</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Norberaren historia miatzea famili iturrien bitartez.</li> <li>. Norberaren friso historikoa egitea.</li> <li>. Senideen (aitona-amonak, gurasoak, osaba-izebak eta anai-arrebak) urtebetzeen egutegia egitea.</li> <li>. Iturri historikoek ematen dituzten informazioak bildu, sailkatu eta ordenatzea.</li> <li>. Familiaren friso historikoa lantzea: jaiotegunak eta familiaren bizitzako gertaera garrantzitsuak.</li> <li>. Familiaren zuhaitz genealogikoa egitea.</li> </ul> <p><b>Azalpen-prozedurak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Eguneroko bizitzaren bilakaeraren faseak analizatzea, aitona-amonekin edo birraitona-amonekin hasi eta bilobekin edo birbilobekin amaituz: lana, garraioa, etxebizitza, arropa, ohiturak...</li> <li>. Familiaren historiaren eta herriko edo herrialdeko historiaren arteko erlazioa.</li> <li>. Familiaren historian izandako aldaketak eta iraunkortasunak analizatzea.</li> <li>. Gertaera historiko orokorren eta familiaren historiako gertaeren arteko kausa-efektu erlazioak identifikatzea.</li> </ul> <p><b>Komunikazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Ikerketa-prozesuaren autoebaluazioa egitea.</li> <li>. Ikerketa-lanen azalpena egitea.</li> <li>. Familiaren historiari buruzko panelak egitea: argazkiak, oroigarriak...</li> </ul>	<p><b>Ezagutzarekiko balore eta jarrerak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Familiaren historia aztertzerakoan interesa eta zorroztasuna azaltzea.</li> <li>. Familiaren historian izandako gora-beheren aurrean sentikortasuna azaltzea.</li> </ul> <p><b>Tolerantzia, empatia eta elkartasuneko balore eta jarrerak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Norberaren eta familiaren arazoan aurrean elkartasuna eta ulermena adieraztea.</li> <li>. Familiako kide bakoitzak betetzen duen rola baloratzea eta rol honekiko errespetua azaltzea.</li> </ul>

## 4.- SOZIOLOGI TAILERRA

### 4.1.- ZENTZUA ETA IKUSMOLDEA

Soziologi tailerraren asmoa herriko bizitza eta errealitate sozialaren esparrua, alderdi positiboak, aukerak eta gizarte- eta kultura-problematika osoki isladatzea da, betiere eskualdearen, Lurralde Historikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren erreferentziatzko testuinguruan.

Herriaren azalera eta bertako biztanle-kopurua oso txikiak direnean beharrezkoa izango da azalera, biztanle-kopuru, ekonomia eta eskaintzen dituen zerbitzuengatik herriaren “erakargunea” edo, zenbaitetan, lan, erosketa edo atsedenerako lekua den herririk hurbilenera jotzea.

Soziologi Tailerrako gai-multzoak herriko errealitatearen alderdiak aztertzen ditu, hala nola kokapen geografikoa, hirigintza, azpiegiturak, ekipamenduak, populazioa, ekonomia eta lana, gizarte-harremanak eta hainbat gizarte- eta kultura-arazo. Ikus daitekeenez, eta jakintzagai nagusia Soziologia izanik ere, gai hauek disziplinentako tratamendua izan dezakete eta, bertan, Ekonomiak, Zuzenbideak, Politikak eta Giza Geografiak protagonismo handia hartzen dute.


Tailerra honetan ikasleek euren gizarte- eta kultura-ingurunearekin “zuzeneko esperientzia” bat izan dezaten proposatzen da. Zalantzarik gabe, esperientzia honek ingurunea ulertzea, interpretatzea eta bertan esku hartzea erraztu eta espazioan eta denboran urrun geratzen diren bestelako gizarte- eta kultura-errealitate zabalagoak ulertzen eta interpretatzen lagunduko du.

Tailerra honen hezkuntza-prozesuak jakintzagaiari dedikatzen zaion denboraren bi heren inguruko iraupena izango du.

Ikerketarako espazio ezinhobea izango da Bigarren Hezkuntzako Institutuaren gizarte-giroa, ikasleen gizarte-harremanak, gatazkak, mutila-neska harremanak, beren balioak, aisia eta kontsumoa, talde-lanak eta abar ingurunearen ikerketarako tailerran lehenespenez aztertu eta ikertuko lirateke.

Proposatutako edukiak orientabide gisa egiten dira beti. Guztiak gehiegizkoak dira aurreikusitako ordu-kopururako. Ondorioz, ikasleen hezkuntza-beharrei hobekien egokitutako edukiak aukeratu beharko dituzte irakasleek. Eduki hauen edota agian antzekoak izanik komenigarriagoak eta bidezkoagoak diren beste batzuen lan pedagogikoaren bidezkoasuna irakasle-taldeak finkatu ahal izango du. Hautaketa-irizpide gisa, ikasleen galdera eta interesak kontuan izango dira, bai eta ingurunean edo ikastetxean gaurkotasuna eta/edo garrantzia duten gaiak ere.

### 4.2.- KONTZEPTU-MAPA: SOZIOLOGI TAILERRA






### 4.3.- EDUKIAK

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>. Herriaren kokapen geografikoa eta esparru fisiko eta naturala.</li> <li>. Populazio-mota: landatarra, hiritarra eta erdihiritarra.</li> <li>. Hirigintza: kaleak, plazak, lorategiak, parkeak, monumentu artistikoak...</li> <li>. Herriko garraibide eta komunikabideak.</li> <li>. Zerbitzu eta ekipamenduak.- Hezkuntza-mailan: ikastetxeak, institutuak, liburutegiak, kultura-gelak...; kirol instalazioak; Osasun-mailan: anbulategia, klinikak...; antzokiak, museoak, erakusketa-aretoak, auditorioak; aisia...</li> <li>. Herriak azpiegitura, zerbitzu eta ekipamenduetan dituen behar eta gabeziak. Problematika eta egon daitezkeen soluzioak.</li> <li>. Herriko ingurugiroaren problematika.</li> <li>. Populazioa: populazio absolutua; populazio-dentsitatea; populazioan izandako aldaketak: jaiotzak, heriotzak, migrazio-mugimenduak.</li> <li>. Etorकिन egoera Euskal Herrian.</li> <li>. Euskal Herriko gizarte-talde kaltetuak. Gizarte-talde desberdinen arteko erlazioa.</li> <li>. Herriko eta eskualdeko ekonomia, Lurralde Historikoarekiko eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko erlazioa. Sektore ekonomiko nagusia. Herriko lanbideak.</li> <li>. Populazio aktiboa eta enplegua. Langabeziaren fenomenoak Euskal Herrian, Estatuan eta Europako Batasunean.</li> <li>. Herriko eta Euskal Herriko gizarte-problematika eta -gatazka. Egon daitezkeen soluzioak eta bideak.</li> <li>. Udala: alkatea, zinegotziak, udal-politika, funtzioak...</li> <li>. Herriko jaiak: data, aurrekari historikoak, oroipena, jaien programa.</li> <li>. Herritarren partaidetza.</li> <li>. Herriko eta Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabideak.</li> <li>. Hizkuntzaren erabilera herrian: euskararen eta gaztelaniaren egoera. Hizkuntz normalkuntza.</li> </ul>	<p><b>Problema eta hipotesien formulazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Azterketa eta ikerketaren xedea finkatzea.</li> <li>. Azterketaren xedeari buruzko galderak formulatzea.</li> </ul> <p><b>Informazioaren bilaketa eta tratamendua</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Herria mapa eta eskala desberdinetako planoetan aurkitzea.</li> <li>. Grafikoak eta datuak interpretatzea.</li> <li>. Iturri desberdinetan herriko gizarte-, kultur eta lan-arazo nagusiei buruzko informazioa miatu, bilatu, bildu, ordenatu eta interpretatzea.</li> <li>. Herriak azpiegitura, ekipamendu eta zerbitzuetan dituen behar eta gabeziei buruzko inkesta bat egitea.</li> </ul> <p><b>Azalpen-prozedurak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Gizarte-gatazka bat analizatzea (ikastetxean, herrian, probintzian, Euskal Herrian). Deskribapena, eraginak, ondorioak, egon daitezkeen soluzio-bideak, ondorioak...</li> <li>. Ohiko inguruneko gizarte- eta kultura-problematikaren hainbat alderdiri buruzko kontzeptu-mapa eta eskemak lantzea.</li> <li>. Publizitate-mezuen analisi kritikoa egitea.</li> <li>. Emakumearen rolen eta egoeraren analisisa egitea.</li> </ul> <p><b>Komunikazioa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Herriko ingurugiroaren problematikari buruzko txostenak egin eta aurkeztea, taldean.</li> <li>. Gizarte-taldean arteko gatazkak antzeztu eta simulatzea.</li> <li>. Ohiko inguruneko gizarte- eta kultura-problematikaren hainbat alderdiri buruzko kontzeptu-mapa eta eskemak lantzea.</li> <li>. Udal-politikari buruzko txostena eta eztabaida egitea.</li> <li>. Herriko hirigintza-planei buruzko eztabaida egitea.</li> <li>. Herriko eta Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabide eta garraibideei buruzko lan monografikoa egitea.</li> </ul>	<p><b>Ezagutzarekiko balore eta jarrerak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Zorroztasuna, zehaztasuna eta objektibotasunaren bilaketa ingurunearen errealitate sozialari buruzko informazioaren tratamenduan.</li> <li>. Komunikabideen informazio eta mezu desberdinen eta ikerketa soziologikoen subjektibitatearen balorazio kritiko eta autonomoa egitea.</li> </ul> <p><b>Tolerantzia, enpatia eta elkartasuneko balore eta jarrerak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>.Gizarte-gatazketan aplikatutako elkarriketaren eta soluzio hitzartuen balorazio positiboa egitea.</li> <li>. Iritzi-aniztasunarekiko errespetua azaltzea.</li> <li>.Langabezi egoeraz eta Euskal Autonomia Erkidegoko talde marjinatu eta kaltetuen problematikaz jabetzea eta horren aurrean elkartasuna erakustea.</li> <li>.Inguruneko lan eta lanbide desberdinekiko errespetua azaltzea eta horien balorazio positiboa egitea.</li> <li>.Eskubide eta betebeharrak arduraz betetzea.</li> <li>.Gatazka indibidual eta sozialak gainditzeko soluzioetan elkarriketa, kritika konstruktiboa eta irudimena aplikatzea.</li> </ul> <p><b>Partaidetza-balore eta -jarrerak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>.Talde-ekintzetan arduraz eta lankidetzaz-izpirituz parte hartzea.</li> <li>. Eskubide eta betebeharrak arduraz betetzea.</li> <li>. Herriko ingurugiroa errespetatu eta zaintzea.</li> <li>. Gizarte-harremanetan errespetua, adeitasuna eta portaera ona azaltzea.</li> <li>. Komunitatea ukitzen duten arazoei loturiko erabaki-hartzean eta gatazken konponketan parte hartzeak duen garrantziaz jabetzea.</li> </ul>

## 5.- ORIENTABIDE DIDAKTIKOAK

Errealitatearen ulermenak, erabateko gizarteratzeak eta errealitatea transformatu eta hobetzeko gizarte-taldeen partaidetza aktibo eta kritikoak, Ingurunea Ikertzeko Tailerrako hezkuntza-mailako esku-hartze osoa bideratuko duen gida osatzen dute.

Inguruneko eta eguneroko bizitzako egoera problematiko batek behar dituen erantzun eta soluzioak bilatzen dituen ikerketa-metodologia, sozializazio-teknika eta -baliabideen bidez ikaskuntza esanguratsuak eraikitzearen zerbitzuan egongo da. Gehien erabiliko diren metodo edo tekniken artean lankidetzeta-lanerako proiektuak aipatu behar dira.



## 5.1.- SOZIALIZAZIO-TEKNIKA ETA -BALIABIDEAK

SOZIALIZAZIO-gaitasuna eskuratzea erraztu dezaketen teknika eta baliabide orokorrak ondokoak dira:

Ikasle guztiak gustora eta estimulatuta sentitzeko, giza eta gizarte-baloreak lantzeko, taldeko elkarreragin positiboa lortzeko eta askatasun-, lankidetz- eta sormen-giro bat sortzeko moduko **gizarte-harremanetako giro bat erraztea**.

Ohituraz **elkarlanean** aritzea ahalbidetuko duten **metodoak eskaintzea**, antolamenduaren, garapenaren, parte hartzeko erabilitako moduen, lortutako helburuen eta aditzera eman diren "rol" desberdinen analisi batera iristen saiatuz.

Elkarren arteko **partaidetza- eta lankidetz-jarrerak estimulatzea**, behar indibidual eta kolektiboetan laguntza emanez eta elkarren artean ezagutu eta laguntzeko bidea emanez, taldearen integrazio eta kohesioa benetako izan dadin.

Elkarlanak norberaren ikaskuntza, ezagutza eta garapena eta gizarte-partaidetza lortzeko modu gisa duen erabilgarritasun eta balioa nabarmenduko duten **lankidetz-izaerako ekintzak antolatzea**.

Klaseko taldearen barruan **jarrera demokratikoen garapena erraztea**. Horretarako, taldekide bakoitzaren desberdintasunekiko errespetu-, tolerantzia- eta onarpen-harremanak bultzatu eta arraza, sexu, klase sozial eta sinesmenetan egon daitezkeen desberdintasunetan eta bestelako ezaugarri indibidual eta sozialetan oinarritutako edozein diskriminazio gaitzetsiko da.

**Gizarte-trebetasunak garatzen laguntzea**, trebetasun hauen bidez besteekin jokatzeko moduan asertzio-jarrerak -ez inhibituak, ez agresiboak- hartu ahal izatearren.

**Irakaskuntza-estilo demokratiko bat erakustea**, ikasleak errespetatuz, eztabaidak bultzatuz, ikasleekin erantzukizunak banatuz eta zereginak banatzean denek parte har dezaten saiatuz. Hau da, gazteen ikuspegiekin identifikatzeko gai izatea eta, batez ere, garapen intelektual eta afektiborako giro egokia sortzea.

Taldean integratuta dauden eta hezkuntza-behar bereziak dituzten ikaskideenganako **onarpen- eta laguntza-jarrerak bultzatzea ikasleen artean**.

## 5.2.- LANKIDETZA-IKASKUNTZA



Ingurunea Ikertzeko Tailerrako hezkuntza-prozesua lankidetzaren esparruan garatuko da. Ingurunea ikertzeko proiektuak ezingo dira bakarka burutu; izan ere, datuak biltzeko, lantzeko, egiaztatzeko... beharrak bakarkako lana gainezkatuko luke.

Ikerketa-prozesuan ebatzi beharreko egoera problematikoak zehaztu eta azterketaren xedea mugatu ondoren, lortu beharreko **helburuak** argi eta garbi definitu, lanaren eta taldekide bakoitzak burutu beharreko zereginen **antolamendu** egokia bilatu eta **taldekideen erlazio, komunikazio eta atsegin afektiboa** erraztuko duen giroa sortu behar du taldeak.

Lankidetzan egindako ikerketek **motibazioa** errazten dute; izan ere, taldekide guztiek euren burua baliagarri ikusten dute, guztiek dute taldeari emateko zerbait eta norberaren gaitasuna handitzea estimulatu da. **Ikaskuntza esanguratsuak** errazten dituzten egoeren artean ondokoak aipa daitezke: zereginetan ikaskide batek hurbileko inguruan naturalki kokatuta dagoen beste bati laguntza ematea, “ezagutza-gatazkak” sortzen dituzten eta informazioa bilatzera bultzatzen duten ikuspegien arteko kontrastea egitea...

Taldean lankidetzaren egiturak elkarrekiko menpekotasun positiboak eta elkarrekin sustatzaileak sortzen ditu taldekideen artean eta, horrela, jakinmina, interesa, ikaskuntzarekiko konpromisoa, zereginetan tinko jarraitzea eta abar sustatzen da, elkarrekiko probetxuaren eta lanean arrakasta izateko konfiantzaren pizgarriarekin.

Bestalde, lankidetzak sozializazioa eta komunikazio-trebetasunetan aurrera egitea errazten du eta hori mesedegarria da ikasleen ezagutza-garapenerako eta ikaskuntzen eraikuntzarako.

**Lankidetzan egindako lana lau fasetan garatzen da:****MIAKETA**

Fase honetan ikasleek gaiari buruzko ezagutzak, usteak, kezak eta bitxitasunak adieraziko dituzte libreki. Horrek guztiak ikertu beharreko edukien eta egin beharreko ikaskuntzen adierazpena erraztuko du. Fase hau amaitzeko, galderak planteatzen dira eta ikertu beharreko hipotesiak azaltzen dira.

**ANTOLAMENDUA**

Fase honetan talde bakoitzeko kideak finkatu, zeregin eta erantzukizunak banatu eta justizi, lankidetzaren eta elkartasun-irizpideekin taldearen funtzionamendu-arauak ezartzen dira.

**GARAPENA**

Lanaren helburuak eta zereginen banaketa finkatu ondoren, fase honetan bakarkako lana hasten da (eta ondoren kolektiboa). Fase honetan aldizkako berrikuspen bat egiten da helburuak betetzen ari diren egiaztatzeko eta, hala badagokio, beharrezkoak diren zuzenketak eta birplanteamenduak egiteko. Une honetan jartzen dira agerian lankidetzaren, beharrik handiena duenarentzako laguntza eta abar.

Lana amaitu ondoren, taldeek egindako zereginen lana, ondorioak eta abar komunikatu, adierazi eta, azkenik, bateratzeko lan garrantzitsuari ekin behar zaio. Oso garrantzitsua da denek parte hartzea eta talde guztiek lortutako informazio, ezagutza eta materialei arreta eskaintzea.

**EBALUAZIOA**

Lana garatzeko prozesu osoan, egin beharreko ikerketaren antolamendu eta garapenari nahiz landutako eduki eta egindako ikaskuntza esanguratsuei buruzko autoebaluazio bat egingo da, betiere markatutako helburuak erreferentziatzen hartuta.

### 5.3.- INGURUNEA IKERTZEKO METODOA

Ingurunearen ikerketa oso baliabide ona da elkarren artean lotuta dauden bi hezkuntza-helburu lortzeko: Ikastetxea errealitatera eta bizitzara hurbiltzea, eta ingurunean jarduteko autonomia eta partaidetza, elkartasun eta kritika konstruktiboko gaitasunak garatzea.

Ingurunearen ikerketak ebatzi beharreko egoera problematiko bat du beti abiapuntu; egoera hori ikasleei lotuta egongo da beti.

Laburbilduz, ikerketan jarraitutako prozesua ondokoa da: problemaren planteamendua; eman daitekeen soluzioa edo hipotesia; miaketa; hipotesiaren baliotasuna egiaztatzea; komunikazioa.

Zehaztu beharra dago ikerketa-prozesu osoan ikasleek izan behar dutela benetako protagonistak. Ikasle hauek gogoan izango dute beti lortu beharreko helburuak zein diren, bai eta horretarako egiten dituzten ekintzen zentzu eta esanahia zein den ere.

#### IKERKETA-PROZESUAREN FASEAK:

<b>PROBLEMAREN PLANTEAMENDUA</b>
<p>Fase honetan euren bizi-esperientziari lotutako eta ikerketaren bidez erantzun beharreko galderak eragiteko moduko egoera problematikoen aurrean motibatu beharko dira ikasleak.</p> <p>Motibazioa eguneroko bizitzako hurbileko arazoei lotutako ekintza desberdinekin sortuko da. Adibidez, ondoko egoera hauek motibagarriak izan daitezke: albiste jakin bat irakurtzea, bideo bat proiektatzea, ikasle batek gertaera edo esperientzia pertsonal bat kontatzea, ikasleak kezkatzen dituen arazo bati buruz hitz egin edo eztabaidatzea, bisitaldi edo ibilaldi bat egitea eta abar.</p> <p>Azterketaren xedea, hau da, ikerketaren bidez erantzun beharreko egoera problematikoa zehaztu ondoren, komenigarria da ikasleek erantzun beharrezko hartzen dituzten galderak egitea. Ekintza talde txikietan edo talde handi batean egin daiteke. Irakasleak galderak arbelean ordenatu eta sailkatu beharko ditu eta, ondoren, garrantzitsuenak aukeratu eta hauetatik ikerketaren edukiak atera beharko dira denon artean.</p>

<b>HIPOTESIAK EDO LEHEN ERANTZUN EDO AZALPENAK</b>
<p>Ikasleek, planteatzen diren galderari euren jakintza eta esperientziaren arabera erantzuten saiatzean, gaiari buruz alde aurretik zituzten ezagutzak –akatsak, ondo eginak, okerrak– adierazi eta ikerketan jarraitu beharreko bide egokiari eta hipotesiak egiaztatzeko erabil daitezkeen baliabide edo tresnei buruzko pistak ematen dituzte.</p>

<b>MIAKETA</b>
----------------

Fase honek ikerketaren plangintza eta datu-bilketa barne hartzen ditu.

Ikertzeko edo informazioa bilatzeko plangintza egiteak ikerketarako tresna egokiak aukeratzea dakar (behaketak, esperimendazioak, bibliografia eta dokumentazioa, inkestak, estatistika-datuen analisia...). Komenigarria da aukeratutako tresnak askotarikoak eta, aldi berean, ikasleen adinerako egokiak eta azterketaren xedearekin bat datozenak izatea.

Miaketaren benetako unea datu-bilketa da eta orduantxe aplikatzen dira ikerketa egiteko aukeratutako tresnak. Tresna hauen bidez jasotzen dira hasierako galderei erantzuteko beharrezkoak diren informazioak.

Ondoren, ordenatu eta sailkatutako datu eta informazioak aukeratu eta bereizi egin beharko dira, aurrerago sakonean aztertu ahal izateko.

### **HASIERAKO HIPOTESIAK EGIAZTATZEA**

Fase honetan, azterketa sakona egin ondoren ondorioak atera, hauen orokortzeak beste errealitate batzuk interpretatzeko eredu gisa balio dezakeen ebaluatu eta hasierako hipotesiak zein neurritan bete diren egiaztatzen da.

Jasotako informazioak ordenatu eta aztertu ondoren ateratzen diren ondorioek informazio horietan estuki oinarrituta egon behar dute eta ikasleen hasierako ezagutza-esparrua zabaltzeko eta, hala badagokio, ikasleen lehen suposizioak neurri batean baliozkotzeko baliagarriak izan behar dute.

Ondorioak azterketa-esparru zehatz bati badagozkio ere, zenbaitetan hauen aplikazioa beste errealitate desberdin batzuetara (nahiz eta antzekotasun-puntuak eduki) eta espazio- eta denbora-koordinatu zabalagoetara orokortu daiteke.

Orokortze hau garrantzitsua da ikaskuntzei sendotasuna eta esanahia emateko. Horrela, ikasleek era honetako galderak erantzun ahal izango dituzte: Ondorioak zein errealitate edota zirkunstantzian izan daitezke baliagarriak interpretazio-eredu gisa? Noiz eta zein zirkunstantzian aplika litezke?, eta abar.

**KOMUNIKAZIOA**

Adierazpenaren, komunikazio-trukearen eta bateratze-lanaren unea da.

Talde bakoitzaren barruan, ikaskideei egindako lanaren eta ateratako ondorioen berri ematen zaie. Komunikazio-baliabide eta -teknika desberdinak erabil daitezke.

Komenigarria da beti funtsezko ideiak azpimarratzea, ikaskide guztien lana baloratu eta errespetatzea eta denon artean aplikazio praktikoak bilatzea.

Egindako lana funtsezko dokumentazio osoa bilduko duen koaderno indibidual edo dossier batean jaso beharko da.



**(A) Lan hau egiterakoan ondorengo urratsak izan behar dira kontuan:****a.- LANAREN PLANGINTZA**

- |                           |   |
|---------------------------|---|
| * GAIA AUKERATZEA         | - Ideia-zurrunbilo baten bidez taldearentzat interesgarria den gai bat aukeratu ahal izango da.   |
| *ZER DAKIGU GAIARI BURUZ? | - Talde kide bakoitzak gaiari buruz dakiena esango du, aurkibide bat lantzen ahaleginduz.   |
| *ZER JAKIN NAHI DUGU?     | - Landuko diren alderdiak aukeratzen dira, argi eta garbi eta behar bezala antolatuta adieraziz.<br>- Gai jakin batean zentratzen diren galderak egiten dira. |
| * GAIAREN GIDOIA          | - Aldez aurreko gidoi bat lantzen da, ikertuko diren alderdi desberdinak barne bilduz.  |
| * NOLA EGIN DEZAKEGU?     | - Denbora eta lan egiteko modua antolatzen da.<br>- Informazio-iturrien eta bideen aukeraketa egiten da.<br>- Estrategiak eta baliabideak aukeratzen dira.    |

**b.- INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA**

- |                 |   |
|-----------------|---|
| * DATU-BILKETA  | Honek zera dakar<br>- Informazio-iturriak erabiltzea: informazio idatzia lortzeko teknikak (liburuak, entziklopediak, kontsulta-liburuak, aldizkariak, egunkariak, urtekari estatistikoak...), beste datu-iturri batzuek, errealitatearen edo zeharkako informazio-iturrien behaketa (elkarrizketak, inkestak...).<br>- Fitxak erabiltzea oharrak hartzeko.<br>- Informazioak hautatzea.<br>- Informazioak argi eta garbi eta logikaz ordenatzea.<br>- Lana ilustratuko duten irudiak, testuak eta abar aukeratzea. |
| *DATUAK LANTZEA | Horretarako beharrezkoa da:<br>- Aukeratutako materialak berrikustea aldez aurreko eskema kontuan izanik.<br>- Iritzi eta informazio desberdinak kontrastatu eta kritikoki baloratzea.<br>- Lanari buruzko behin-betiko gidioa eta aurkibidea lantzea.<br>- Azken idazkuntzarako baliagarriak izango diren laburpenak eta borradoreak egitea.   |

**c.- LANAREN IDAZKUNTZA**

- |                                  |   |
|----------------------------------|---|
| * BEHIN-BETIKO DOSSIERRA LANTZEA | Honek zera dakar:<br>- Idazkuntza-teknikak erabiltzea.<br>- Idazkiaren helburuak eta ezaugarriak argi eta garbi mugatzea.<br>- Lanaren zatiak diseinatzea: azala, izenburua, sarrera, gorputz zentrala, ondorioak, bibliografia, eraskinak, eta abar. |
|----------------------------------|---|

## 5.4.- BALIABIDE METODOLOGIKOAK

\* Ikasleek ikaskuntza esanguratsuak gara ditzaten, ondorengo alderdiak kontuan izango dira:

Aukeratzen diren edukiak ikasleen jakintza eta esperientziari eta, ahal den neurrian, beren kezka, igurikapen eta interesei lotzeko ahalegina egingo da.

Ikasleak ikasteko azaltzen duen aldako jarrera, motibazioa, areagotu egiten da interesatzen zaizkion eta berari edo bere senitartekoei ukitzen dieten gaiak lantzen direnean, hala nola populazioa, ekonomia, enplegua...

Ikaskuntzek izaera praktikoa eta bizi-izaera garrantzitsua edukiko dute, oso erabilgarriak izango dira. Zentzu honetan, komenigarria izango da:

- . Ezagutzak bizitza errealaren datuak eta adibideak adieraziz irakastea. Gure kasuan, gure herriko eta/edo Euskal Herriko populazioari buruzko datu eta adibideekin.
- . Ikasitakoa kasu praktikoko errealitatean aplikatzea.
- . Ikasleak egoera problematikoei irtenbideak bilatzeko egoeran jartzea, esate baterako marjinazioari, langabeziari eta barreri buruzko egoerei dagokienez.
- . Kontzeptuen ikaskuntza gauza zehatzei eta eguneroko bizitzaren egoerei buruzko aipamenak eginez indartzea.

Herriko populazioari buruzko irakatsi eta ikasteko prozesua batez ere pertsonarteko harremanen giroan egingo da, baina era berean ekintza indibidualak egongo dira.

\* Baliabide metodologiko guztiak hezkuntza-helburuak lortzeko eta ikaskuntza esanguratsuak eraikitzeko baliagarriak izan daitezkeela usteak aniztasun metodologikoaren alde egitea dakar. Askotariko baliabide metodologikoak erabiltzeak hezkuntza-prozesua, sozializazioa eta gaitasun kognitibo, psikomotore, komunikatibo, afektibo eta abarren garapena aberastuko du.

Hala ere, ikerketa-metodo batean murgilduta gaudenez gero, komenigarria da kontu handiz ibiltzea. Adibidez, azalpenean oinarritutako metodologia bat, aldeaz aurretik ezarritako “egiak” edo testuliburuaren baliabide eskusiboa neurririk gabe erabiltzerik ez dago. Aitzitik, beharrezkoa izango da kontsulta-liburu eta informazio-iturri desberdinak erabiltzea. Gainera, hauetariko batzuk ikertu beharreko errealitate bertatik jaso beharko dira.

Baliabide metodologiko bakoitzak ahalmen pedagogikoak izan ditzake ingurunea ikertzeko prozesuaren faseren batean. Gehiegi zehazteko asmorik gabe, ondokoa esan daiteke:

- Lekuan bertan egiteko lanak eta kultur irteerak oso onak dira ingurunearen ikerketa sistematikorako.
- Mapak, grafikoak eta abar espazio- eta denbora-koordinatu desberdinetan errealitate fisiko, natural eta soziala adierazteko tresna baliotsuak dira.
- Komunikabideek errealitate soziala isladatzeko informazioaren tratamendu desberdina erabiltzen dute. Komunikabide hauen erabilera didaktikoak Prentsa, Irrati eta Telebistako mezuak behar bezala “iragazteko” gaitasun kritikoa izango duten pertsonak hezitzen lagundu behar du.
- Liburutegiak, hemerrotekak eta teknologia berriak –bideoa, CD-ROM...– erabiltzea oso baliabide ona izan daiteke informazioa eta dokumentazioa lortzeko.
- Inkestak oso baliagarriak dira errealitate sozialaren egoera antzemateko.
- Mahainguruek, eztabaidek eta bestelako adierazpen-teknikek komunikazio-trebetasunak garatu eta kontzeptu, ideia, iritzi, balore eta abarren ulermena errazten dute.
- "V heuristikoa" ikerketa-metodoaren zerbitzuan dagoen heziketa-teknika bat da eta balio pedagogiko handia duen beste baliabide bat da.
- Kontzeptu-mapek ideiak eta kontzeptuak osotasun-ikuspegi batekin ulertzea ahalbidetzen dute.

### 5.4.1.- LANDA-LANAK

Funtsezko baliabide metodologikoa osatzen dute errealitatea eta bizitza Ikastetxearekin lotzeko eta ingurunearen ikerketa sistematikoa egiteko.

Ingurunea bera ere, azterketaren xede izateaz gain, motibatze eta ikaskuntza bultzatzeko baliabidea da.

Lekuan bertan egiteko lanek, irteerek eta landa-lanek zeregin zientifikoaren oinarritzko gaitasunak garatzen dituzte (miaketa, informazio-bilaketa, kontrastea, egiaztaketa...), gizartearen parte-hartzea, lankidetzaz-ikaskuntza eta balioen heziketa (errespetua, erantzukizuna, lankidetzaz eta abar) errazten dute, eta errealitatea liburu baten orrialdeetan —adibidez— adierazitako errealitatean ikasi ordez benetako errealitatean ikasten laguntzen dute.

Landa-lanak eta ohiko ibilaldiak bereizi egin behar dira, azken hauek osagai ludiko eta informala baitute.


Irteeretan eta lekuan bertan egiteko lanetan aukera didaktiko handiak optimizatuko dituen antolamendu eta planteamendu metodologiko bat behar da. Hainbat alderdi aurreikusi egin behar dira, hala nola:

- \* Aldez aurreko prestaketa: egoera problematikoa, motibazioa, azterketaren leku eta xedea aukeratzea, kontsulta-dokumentuak, ibilbideak, talde-lanen antolaketa, funtzioen banaketa eta, hala badagokio, bidaia eta garraioaren aurrekontuak eta abar.
- \* Lanaren burutzapena: behaketa-gida, datu eta informazioen bilketa, inkestak, ikus-entzunezko euskarrien erabilpena (argazkiak, diapositibak, magnetofonoa, bideoa...). Lana taldean egingo da nahiz eta, aurreikusitako lanaren antolamenduaren arabera, erantzukizun indibidualak hartu behar izan.
- \* Ondorengo lana: ikasgelan egingo da: jasotako datu eta informazioen kontraste, aukeraketa eta antolamendua, ondorioen lanketa, ikerketari buruzko txosten baten aurkezpena, lanaren azalpen eta komunikazioa eta ebaluazioa.

Ekintza hauek burutzen direnean taldeen antolaketa malgua eta demokratikoa baimenduko da, baina beraien osaeran doikuntza txiki batzuek proposatuko dira aintzasunaren trataera egokia egiteko.

## 5.4.2.- IKERKETA SOZIOLOGIKORAKO TRESNAK

Gizarte- eta kultura-ingurunea ikertzeko tailerraren hezkuntza-prozesuaren garapenerako oso erabilgarriak dira, eta honen barruan soziologi tailerraren garapenerako bereziki.



### 5.4.2.1.- IDEIA-ZURRUNBILOA

Idea-zurrumbiloa zera da: lan-talde batek arazo edo problema jakin bati erantzutea, askatasunez, bapatean, kritikarik eta mugapenik gabe.

Teknika honen bitartez irudimen sortzailea landu egiten da.

Oinarrizko suposamendu bat da bere funtsa: pertsonen giro erabat informalean eta burura etortzen zaiena adierazteko askatasun osoarekin jarduten uzten baldin bazaie, dituzten ideia ugarien artean (batzuek ez dira errealak eta erokeria hutsa dira) prozesu osoa justifikatzen duen ideia paregabe bat agertzeko posibilitatea dagoela, hain zuzen ere.

#### IDEIA-ZURRUNBILO BAT NOLA EGIN?

Askatasun osoz, bapatekotasun-giroan, behartu gabe eta kritikarik egin gabe, eta denbora kontrolatu gabe, ondorengo prozesu honi jarraitzea:

#### **A. Aurkezpena**

Irakasleak gaia (ebatzi behar den arazoa edo problema) aurkeztu egiten du eta prozedura eta kontuan izan behar diren arauak azaltzen ditu.

#### **B. Idea-produkzioa**

Denborari dagokionez fase aldagarria da, taldeak ideiak askatasun osoz jaulki eta adierazten dituen bitartean iraungo duena.

Ikasle batek idazkari lana beteko du eta notak hartuko ditu, esate baterako, arbelean.

Irakasleak hitza ematen du, prozedura zuzentzen du, galderak egiten ditu sormena indartzeko..., baina ez du ideia-produkzioan parte hartzen.

### **C. Ideiak aukeratzea**

- a. Taldeak produzitutako ideia guztiak begibistan daude.
- b. Kategoria desberdinetan antolatzen dira.
- c. Onargarriak ez direnak baztertu egiten dira, esate baterako (-) ikurra ipiniz, eta onargarriak direnak aukeratu egiten dira, (+) ikurrarekin.

Braimstorminga teknika ezinhobea da ikasleen interesak zein diren jakiteko, sormena sustatzeko eta gai jakin bati buruz alde aurretik duten ezagutza jakiteko, eta era berean irakasleei "arrasto" interesgarriak ematen dizkie hezkuntza-prozesua behar bezala bideratu eta zuzentzeko.

#### **"IDEIA-ZURRUNBILOAREN" TEKNIKAREN APLIKAZIOA**

### **Taldean**

Braimstorming bat egiteko gaien adibidea.

1. Institutuko arazoak konpontzeko zer egin dezakegu?
2. Zer gertatuko litzateke enplegua herriko populazio aktibo guztiaren artean banatuz gero?
3. Nola bultza daiteke biztanleen parte-hartzea herriaren bizitzan?
4. Zer egin daiteke talde marjinalak herriko bizitzan integratzeko?
5. Nola lagun diezaiekegu talderik kaltetuenei?
6. Zer gertatuko litzateke inork trafikoko seinaleak eta zirkulazio-arauak ez errespetatuz gero?
7. Institutuan erabiltzeko 15 milioi edukiko bazenitu, zer egingo zenukeen?
8. Zein arazo sozial edo kultural ikertuko zenuke, zure inguruari, familiari, ikastetxeari, auzoari edo herriari loturik?

### **5.4.2.2.- EZTABAIDA-TEKNIKAK**

Eztabaida-teknika nagusiei dagokienez, honako hau adieraz dezakegu:

#### **A. EZTABAIDA**

Eztabaida ahozko lengoaiaren berariazko teknika bat da, eta gai bati buruzko ideiak aurkakoa pentsatzen duten solaskideekin trukatu eta gure argudioen egokitasunaz jabe daitezen saiatzean datza.

Eztabaidak, beste koalitate pedagogiko batzuen artean, arrazonamendurako gaitasuna garatzen du, kritika konstruktiboa errazten du, eztabaidatu aurretik informatzeko beharra eragiten du eta ateratzen diren ondorio praktikoei buruzko konpromisu kolektiboa hartzea ahalbidetzen du.

#### **\* EZAUGARRIAK**

1. Eztabaidak errespetatu egin behar diren eta ikasleak alde aurretik ezagutu behar dituen arau formal batzuek ditu.
2. Gaia, ahal izanez gero, zehatz-mehatz eta sakonean aztertu behar da.
3. Pertsona batek eztabaida zuzendu eta gidatu behar du, idazkari lanak egin behar ditu. Bozeramaile bakoitzaren esku-hartzeko denbora kontrolatu egin behar da, bi bozeramaileen artean modu orekatuan banatzeko.
4. Ideiei kontra egiteko argudioak erabili behar dira, baina ez zaie pertsoneri eraso egin behar.
5. Ideiak arrazoituz defendatu behar dira.
6. Amaieran ondorioak atera behar dira.

## **B. PANEL BIKOITZA**

“Panel bikoitza” zera da: bi talderen artean gai bati buruzko eztabaida bat egitea, denbora jakin batekin. Arrazonamendurako gaitasuna eta norberaren azalpen logikoa garatzen du, eta gai bat ikuspegi desberdinetatik sakontzea ahalbidetzen du.

### **\* METODOLOGIA**

#### **Prestaketa**

a.- Beren gaurkotasuna, hurbiltasuna, interesa eta abar direla-medio ikasleentzat esanguratsuak diren gaiei buruzko ideia-zurrumbilo baten bitartez, eztabaidarako gai bat sortzeko ahalegina egingo da, eta ikaslea motibatuzko erabilgarria izango da. Gairik ez baldin bada sortzen edo gai bat baino gehiago baldin badago, irakasleak ideia edo gai bat aurkeztuko du eztabaidarako.

b.- Klasea hamar pertsonatik gorako taldetan banatzen da. Talde bakoitzak jarrera desberdin bat defendatuko du, aldeko arrazoiak eta argudioak ematen ahaleginduz.

Argudioak beharrezkotzat jotzen den denboraz prestatzen dira, eta era honetan jarrera baten edo bestearen aldeko argudioak eta arrazonamenduak aurkezten dira, eztabaida soilik iritziak adieraztera murriztuta gera ez dadin.

#### **Aretoaren kokaera**

Taldeetako bozeramaileak mahai zabal baten edo mahai-multzo baten bi aldeetan banatzen dira: jarrera bat duena alde batean eta beste jarrera desberdin bat duena bestean; moderatzailea erdian egongo da, ondorioak apuntatuko dituen pertsonarekin batera.

Klasearen gainontzekoa aulkietan eserita egongo da, eztabaida-mahaiaren inguruan kokatuta.

#### **Garapena**

a.- Eztabaidarako bi ekipo egiten dira; batek jarrera bat hartu edo defendatzen du, eta besteak aurkakoa. Komenigarria da behaketarako edo iritziak emateko hirugarren ekipo bat egitea, ikusle gisa eztabaidaren garapena behatuko duena, behaketa-orri batean beronen garapena apuntatuz.

Talde bakoitzak pertsona bat aukeratuko du, bozeramaile gisa jarduteko.

b.- Moderatzailearen zeregina beteko duen pertsona bat aukeratzen da. Pertsona hau hitza emateaz, gaia hoztuz gero galderaren bat egiteaz edo beste bide batzuek hartuz gero berriz bideratzeaz arduratuko da, eta beste pertsona batek ondorioak apuntatuko ditu.

Eztabaidaren iraupena ordu betekoa edo klase batek irauten duen denborakoa izan daiteke.



### 5.4.3.- KONTZEPTU-MAPAK

Kontzeptuen arteko eta hauen eta euren atributuen arteko erlazioen adierazpen eskematikoa da, ikustean oso nabarmen geratzen dena.

Kontzeptuen arteko erlazioak hierarkikoki antolatuta daude —orokorretatik berezietara, osotasunetik zatietara—. Hainbat motatako erlazioak ezar daitezke: menpekotasun-erlazioak, antolamenduz gaindiko erlazioak, kausalitate-erlazioak...

Kontzeptu-maparen elementuak ondokoak dira: kontzeptuak, erlazioak eta lotura-hitzak.

**Kontzeptuak** letra larriz idatzitako hitzekin adierazten dira eta obalo edo lauki batean itxita egoten dira.

**Erlazioak** kontzeptu desberdinak lotzen dituzten marrak dira. Esplizituak edo implizituak izan daitezke. Erlazio esplizituak lotura-hitzak dituztenak dira. Erlazio implizituak berriz, lotura-hitzik ez dutenak.

**Lotura-hitzak** erlazioan dauden kontzeptu desberdinak elkarren artean lotzen dituzten lokarriak dira.

Ingurunearen ikerketan kontzeptu-mapak oso erabilgarriak izan daitezke. Irakaskuntza, ikaskuntza eta ebaluazioaren hezkuntza-eremuetan erabil daitezke.

Irakaskuntzan oso egokiak dira informazioa modu ordenatu batean aurkezteko, ideia garrantzitsuak azpimarratzeko, ikus-memorizazioa errazteko eta azterketaren xedea testuinguruan kokatuko duen osotasun-ikuspegi bat emateko.

Ikaskuntzan, ikasleek garatzen duten elaborazio-prozesuak berak abantaila pedagogiko handiak eskaintzen ditu, hezkuntza-aberastasun handikoak. Horrela, lankidetzan eta taldean egindako lana bultzatu, sormena suspertu, ideien antolamendua erraztu, jarduera intelektual handia eskatu eta ikaskide eta zeregin berarekiko lotura afektiboak garatzen ditu.

Azkenik, ebaluazioan ezagutza eta, hala badagokio, ikaskuntzan egindako aurrerapena baloratzeko erabil daitezke; izan ere, azken ezagutza-maila erakutsi, kontzeptuzko ulermena isladatu eta ikaskuntzan izandako hutsegiteak aurkitzen dituzte.

### KONTZEPTU-MAPEN ELABORAZIOA

Kontzeptu-mapak egiteko modu eta estilo desberdinak daude eta jarraian, orientabide gisa, elaborazio-prozesua garatzeko modu bat azalduko dugu, ondoko sekuentzia duena:

A.- **ALDEZ AURREKO FASEA**: kontzeptu-mapako elementuekin ohitzea, gaiak laburtuz eta laburpenak erabiliz "aldez aurreko antolatzaile" gisa.

B.- **AURKEZPENA**

1.- Irakasleak teknika zertan datzan eta kontzeptu-mapen elementuak zein diren azaltzen du.

2.- Irakasleak dagoeneko klasean aztertu den gai bati buruzko kontzeptu-maparen adibide bat erakusten du, honako eskema honi jarraituz:

- a.- Testuan agertu diren kontzeptuen aukeraketa.
- b.- Maparen eraikuntzan erabil daitezkeen lotura-hitz posibleen aukeraketa.
- c.- Aukeratu diren kontzeptuak kontuan izanik, duten garrantziaren ondorioz maparen lehen postuetan egongo direnak hautatzea.
- d.- Maparen izenburua eta lanketa, beti ere ikasleek egindako iradokizunak kontuan izanik.

1. Kontzeptu bat zer den azaltzen da. Modu sinple batean, kontzeptu bat objektu edo gertaera bat izendatzeko erabiltzen den hitza dela esan daiteke. Adibideak ematen dira.
2. Ikasleek kontzeptuak izendatzen dituzten hainbat hitz aipatzen dituzte. Arbelean idazten dira.
3. Ondoren lotura-hitz batzuk aipatzen dira, hala nola: da, dago, du, ondokoaren bidez, garatzen du...
4. Arbelean lotura-hitzen bidez bi edo hiru kontzeptu lotzen dituzten zenbait esaldi osatzen dira bertikalki. Bisualizazioa errazteko, kontzeptuak letra larriz idatzi eta obalo edo lauki batez inguratzen dira. Lotura-hitzak letra xehez idazten dira.
5. Hainbat esaldi edo proposizio osatzen dira eta ikasleek kontzeptuak eta lotura-hitzak identifikatzen dituzte.
6. Amaieran adibide bat duten esaldiak osatu eta bertikalki “marratzen” dira. Adibidea ez da obalo edo lauki batez inguratzen.
7. Arbelean gai ezagun bati buruzko kontzeptu-mapa lantzen da denon artean. Kontzeptuzko hierarki maila batetik beste batera igarotzeko hainbat galdera erantzuten dira, hala nola: zer da? nolakoa? zergatik? zertarako? noiz? eta abar. Horrela kontzeptu-mapa “negoziatu” eta eraiki egiten da.

3.- Ikasleekin lan-taldeak eratzea, une horretan ikasten ari diren gai baten atal bati buruzko kontzeptu-mapa bat lantzeko. Taldeak hiru edo lau pertsonakoak izan daitezke, neskak nahiz mutilak barne hartuz.

4.- Talde guztiek edo batzuek beren kontzeptu-mapa klaseko gainontzekoei erakusten diete, beren burutzapena azalduz. Irakasleak mapei buruzko iruzkina egiten du,

esanguratsuen eta positiboen azpimarratuz. Kontzeptu-mapak ikasgelako mural batean ipin daitezke.

**C.- KONTZEPTU-MAPEN APLIKAZIOA**, ondorengo era honetan erabilia:

a.- Aldez aurreko antolatzaile gisa. Aztertzen ari den gaiaren zatia berrikusteko eta atal berriak azaltzeko baliagarria da, dagoeneko ikasi diren kontzeptuak erabiliz. Hasierako kontzeptu-mapa ikasleen ekarpenekin zabaltzen da.

b.- Gaiaren berrikuspen globala. Irakasleak eta taldeak-klaseak kontzepturik interesgarrienak aukeratzeko dituzte, kontzeptu-mapa indibidual bat egiteko xedez. Irakasleak, bidezkotzat jotzen badu, hasiera posible batzuek iradoki ditzake, proposamen bat edo bakarrik adieraziz.


c.- Ikasitako esanahiak erkidetzeko metodoa. Indibidualki egindako mapak abiapuntutzat hartuz eta guztien ekarpenak barne hartuz, mapa bat lantzen da arbelean. Esperientzia hau ikasleentzat baliagarria da bi mapa berdinean ez daudela ikusteko eta ikasteko moduari berari buruzko hausnarketa egiteko.

d.- Lan baten emaitzak eskematikoki komunikatzeko

## KONTZEPTU-MAPEN APLIKAZIOAK

### Kontzeptu-mapen egitura eta erabilgarritasuna


Ontoria (1992, 96)



*Kontzeptu-maparen kontzeptua bere egituraren eta erabilgarritasunaren arabera*

### Kontzeptu-maparen erabilgarritasuna ikasleentzat


Ontoria (1992, 100)



*Kontzeptu-maparen erabilgarritasuna ikasleentzat*

### Kontzeptu-maparen erabilgarritasuna irakasleentzat

Ontoria (1992, 98)



*Kontzeptu-maparen erabilgarritasuna ikasleentzat*

## 5.5.- MATERIALAK ETA BALIABIDEAK

Kontuan izanik irakatsi eta ikasteko prozesua behar bezala garatzeko gai honek iturri desberdinetatik datozen informazio eta datuak eskatzen dituela, beharrezkoa izango da dokumentu informatzaile eta estatistikoak bilatu eta erabiltzea, esate baterako: EUSTATen urteko "Estadística-Urtekaria", populazioaren errolda eta udaleko ekonomia eta enpleguari buruzko datuak, herriko prentsan, tokiko aldizkarietan, prentsa alternatiboan, iratian eta telebistan gai hauei buruz ematen diren informazioak eta erreportaiak eta, jakina, gurasoek, senitatekoek eta herrialdeko bizilagunek transmititzen duten ahozko informazioa.

Dagoeneko aipatu diren idatzizko, ahozko eta dokumentuzko iturriez gain, "Populazioa, ekonomia eta enplegua nire herrian" izeneko proiektu didaktikorako izan ditzakegun baliabide nagusiak ondorengo hauek dira:

\*Mapak: Informazio-iturri gisa eta gure herrialdeko, bere ingurunekeo eta Euskal Herriko lurraldearen egoera espaziala lortzeko baliagarria. Mapa historikoak, geografikoak, ekonomikoak eta abar erabili behar dira.

\*Bideoak: Proiektu didaktikora erraz egoki daitekeen tresna erabilgarria eta irekia da. Errealitatea hurbil dezake (herrialdea, eskualdea...) ikastetxeak bere bitarteko tradizionalekin egiten duena baino modu indartsuagoan. Bideo didaktikoen oinarritzko helburua informatzea, motibatzea eta ikaskuntzetarako indartze gisa baliagarri izatea da.

Bideoak modu desberdinetan erabil daitezke:




- . Gai bat hasi baino lehen: ikasleak motibatzekeo baliagarria izan daiteke.
- . Gaia aztertzen den bitartean: Pelikula historiko bat edo filmazio geografiko bat erabil daiteke, gaiaren ardatza izan daitekeena.
- . Gaia amaitzerakoan: Bideoa aztertu den proiektuaren laburpen gisa aurkez daiteke, esate baterako produktu baten analisia lehengai denetik hasi eta kontsumitzailearengana iritsi arte.

\*Erretroproiektorea: Azalpen teorikotarako, laburpenak egiteko eta kontzeptu-mapak aurkeztekeo erabilgarria da, erabat aprobeitza daitekeen bitartekoa da. Irudi finkoak irudi mugikorak ez dituen azterketa eta analisisirako posibilitateak ditu.

\*Ordenadorea: Ikaskuntza desberdinak eskuratzeko baliabide gisa erabili behar da. Ikastetxeak ordenadore pertsonalekin ekipatutako ikasgela bat baldin badu, ekintza asko egin daitezke, esate baterako:

- . Dagoeneko landuta dauden grafikoek behaketa edo hauen burutzapena. Gai desberdinak landu daitezke, hala nola: Lurralde Historikoko sektore ekonomiko desberdinen egoera.
- . Herrialdeko Populazioaren Piramideen burutzapena.

- . Indibidualki edo taldeka egindako lanei buruzko txostenak egitea, testu-prozesadore gisa.
- . Datu-basea, azken hamar urteetako migrazio-mugimendu guztiekin.





## 6.- EBALUAZIOA

### 6.1.- EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideak planteatzerakoan, Tailerraren helburuak eta bertan aurreikusitako eduki-mota desberdinak erreferentziatzen hartu eta “ebaluatea kalifikatzea baino zerbait gehiago dela” izan behar da kontuan. Halaber, gogorarazi beharra dago ebaluateak bi zeregin dakartzala:

- Ikasleak ebaluatzeko oinarria izango diren ikaskuntzak ahalik eta garbien definitzea.
- Hori egiaztatzeko teknika eta tresnarik egokienak aukeratzea.

Tailerra honetako lehen ziklorako irizpideak ondokoak dira:

1. Ikasleen eragin-eremuko **gizarte- eta kultura-egoera problematikoak** deskribatu eta analizatzea, arazoak identifikatuz eta ondorioak aurreikusiz eta, hala badagokio, soluzio-aukera batzuk aurreratuz.

*Honen helburua ikasleak euren herrian eta ingurunean dauden gizarte- eta kultura-arazo desberdinak analizatu eta deskribatzeko gai diren egiaztatzea da. Era berean, soluzioak formulatzeko, arazoaren iritsiera neurtzeko eta egoera eta zirkunstantzia ekonomiko, politiko eta abarrekin erlazioak ezartzeko duen gaitasuna ebaluatu nahi da.*

2. Ikasleen interesa pizten duen herriko gertaera sozialen bati buruzko **ikerketaren egitea** taldean eta lankidetzaz jarrerak hartuta, **gizarte-eremuetako ikerketaren prozesuaren** oinarriko prozedurak era antolatu eta sistematikoan erabiliz: arazoak identifikatzea, hipotesia, miaketa eta baliozkotzea. Eta ikaskideei ikerketaren prozesua eta emaitzak ulertzeko moduan jakinaraztea.

*Irizpide honen helburua herriari buruzko ikerketaren txikiak planteatzeko eta taldean egiteko ikasleek nolako gaitasuna duten eta metodo zientifikoaren aplikazioan nolabaiteko trebetasuna lortu duen ebaluatzea da, ezagutu eta analisiak egiteko bide gisa, errealitate historiko, sozial eta kulturalaren gizarte-ikerketarako. Ikasleek iturri desberdinetatik informazioa lortzeko duten autonomia eta beroni loturik egiten duten sistematizazioa eta ematen diren soluzioetan beren inplikazio pertsonala baloratu egingo da.*

3. **Norberaren friso historikoa** egitea, norberaren biografiaren (curriculum-vitaeren) gertaera eta fenomeno garrantzitsuei buruz gogoeta eginez eta hauek deskribatuz.

*Irizpide honekin ikasleek denbora historikoaren oinarritzko nozioak (oraina - iragana - etorkizuna, iraupena, aurrekoa - ondorengoa) eskuratu dituzten eta norberaren eta familiaren historiako gertaerak aipatzean eta eguneroko bizitzako gertaera garrantzitsuei eta hainbat alderdiren bilakaerari buruzko azterketan behar bezala erabiltzen dituzten egiaztatu nahi da. Friso historikoan garrantzitsuena ez da gertaera edo pertsonaren egoera zehatz eta puntuala, aurrekoa (bere arrazoiekin) eta ondorengoa (bere ondorioekin) baizik.*

4. **Euskal gizartean esanguratsuenak diren ohiturak, baloreak eta bizimoduak** identifikatzea, gizarte anitz honen bereizgarriak diren ezaugarri exogenetatik desberdinduz.

*Irizpide honekin ikasleek eguneroko jarduera burutzen duteneko gizarte-ingurunearen alderdirik garrantzitsuenak (baloreak, azturak, pentsamoldea, lan egiteko moduak, aisiaren antolaketa...) ezagutzeko duten gaitasuna baloratu nahi da. Horrela, euskal gizartean bereziak eta bakarrak direnak nabarmendu eta, aldaketa-, iraunkortasun- eta berezitasun-ideien arteko desberdintasuna ezarrita, sustrai sakonak dituen erabilera dutenak ezarri berriak direnetatik bereiziko dira.*

5. **Adierazpen historiko, kultural eta artistiko** nagusiak ezagutu eta analizatzea, bere aniztasun eta aberastasuna antzemanen eta gozatuz, eta **tradizioak**, euskara eta **Euskal Herriaren** berezkoak diren beste ezaugarri batzuek **manten daitezen laguntzea**.

*Irizpide honen bidez ikasleek gure herrialdeko nortasun historiko eta kulturalari buruzko oinarritzko ezagutzak lortu dituzten, egungo euskal gizartearen analisi eta ulermenean erabiltzen dituzten, eta euskal nortasun kultural eta sozialaren kontserbazioan pertsonalki zein erantzukizun-maila duen egiaztatu nahi da, bereziki aldaketa-prozesu iraunkor batean dagoen gizartea delako.*

6. **Kulturaniztasuna** aniztasunaren eta gizarte-aberastasunaren adierazpen gisa ulertzea.

*Irizpide honen helburua zera da, hots, ikasleek Euskal Herrian tradizionalak direnez bestelako kultur eta gizarte-adierazpenekiko tolerantzia azaltzen dutela, adierazpen hauek defendatzeko prest daudela eta beste kultur errealitate batzuen ezagutza euren nortasuna osatzeko jarduera atsegintzat hartzen dutela ziurtatzea. Halaber, Euskal Herriaren kultur nortasunari eusteko borondatea abiapuntutzat hartuta, kultur sinkretismo eta aniztasuna gure garaiko gizartearen balore eta ezaugarri gisa zein neurritan ulertzen duten finkatu nahi da.*

7. Gure gizarte garaikideko **gertaera historiko** garrantzitsuen eta **familiako eta herriko** gertaeren arteko argibide-erlazio bat ezartzea.

*Irizpide honen helburua herriko historian eta bereziki familiaren historian eragina izan duten izaera desberdineko gertaera historikoak (sozialak, ekonomikoak, erlijiosoak, politikoak, kulturalak...) identifikatzeko eta, hauen bilakaera argitzeko bide gisa, testuinguru globalaren eta ingurunerik hurbilenaren arteko kausa-efektu erlazioak ezartzeko ikasleek duten gaitasuna ebaluatzea da.*

8. Gure herriak, gizarteak eta Euskal Herriak demografian, ekonomian, hirigintzan, politikan eta abar **jasandako transformazio** nagusiak deskribatzea (1979an Autonomia Estatutua onartu zenetik aurrera adibidez), alderdi positiboak nahiz oraindik soluzio bat behar dutenak isladatuz.

*Irizpide honen bidez Autonomia Estatutua onartu zenetik gaur egun arte euskal gizartean gertatutako aldaketa globalaren ulermena ebaluatu nahi da, ekonomian, gizartean, politikan... gertatutakoak bereiziz. Horrek Espainiaren eta Euskal Herriaren demokraziarako transizioak ekarri duen gizarte- eta politika-aldaketa esanguratsuari buruzko analisiaren hastapena ebaluatzea ahalbidetuko du.*

9. Etnia, ideologia, sexu, iritzi eta abarreko arrazoiengatik gure gizarte- eta kultura-ingurunean agertzen diren eragin zuzeneko **diskriminazio-adierazpenak** antzeman, analizatu eta kritikatzeko, proposamenak eginez eta, ahal den neurrian, bidegabeko egoera hori zuzentzeko zentzuzko neurriak hartuz.

*Asmoa zera da, hots, ikasleek etnia, ideologia, sexua, iritzia eta abar kontuan hartu gabe pertsona edo taldeekiko errespetu- eta tolerantzia-jarrerak garatzen dituztela, bere eguneroko bizitzan eta proposatzen diren ekintza desberdinen garapenean erraz antzeman daitekeena, eta, ahal den neurrian, gure ingurunean antzemandako diskriminazio-jarrerak gainditzeko lagunduko duten soluzioak ematen saiatzen direla egiaztatzea.*

## 6.2.- PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

Ebaluazioa hezkuntza-prozesuan barne hartuta dago eta etengabe informazioa eskaini behar dio, beharrezkoak diren zuzenketak eta planteamendu berriak egiteko, hala dagokionean.

Ikasleak ebaluatzeaz gain, erabilitako materialak eta metodoak eta proiektuaren osotasuna ere ebaluatzea komenigarria da.

Hasierako ebaluazioa, alde zuzeneko azalpena: Elkarrizketen bitartez ikasleek beren bizilekua duten udalerrinari buruz dituzten alde zuzeneko azalpenak ezagutuko ditugu, esate baterako: biztanle kopurua, hauen jatorria, zonan nagusi diren industriak edo sektore ekonomikoak zein motatakoak diren, lan-arazoak, gizartegatazkak, langabezia, emigrazioa, arrazakeria... Udalerriko atal desberdinak tratatzerakoan, ebaluazio hau irakasleak komenigarritzat jotzen duen unean egin daiteke.

Ikasleen abiapuntu-egoera ezagutu nahi da, eta honek proiektu didaktikoaren hezkuntza-prozesuak egokitzea eta neurri batean ikaskuntzen esanguratasuna erraztea ahalbidetuko du.

Prestakuntzaren eta prozesuaren ebaluazioa: Ikerketa-prozesua garatzen duten ekintza desberdinek berez prestakuntzako ebaluaziorako prozesua eratzen dute, ikasleek prozesu osoan zehar beren aurrerapenak ikus ditzaketelako, neurri batean ekintzen zati handi batek hausnarketarako uneak eta iruzkin indibidualak edo kolektiboak barne hartzen dituztelako, eta hauek beren lorpenak edo hauen zailtasunak bereganatzen ahalbidetzen dietelako.

**Autoebaluazioa** ebaluazioaren une hauetan indartu beharreko metodoetako bat da, ikasle zintzoagoak, adituagoak, lehiakorrak ez direnak hezitzen lagunduko dugulako eta, aldi berean, beren ikaskuntzan autonomoagoak izango diren ikasleak prestatzen arituko garelako eta beren ikaskuntzen izarea orientatzailea eta erregulatzailea bermatuko dugulako.

**Koebaluazioa** ebaluazio-metodo gisa ere erabili behar da, ikasle solidarioagoak eta zuzenagoak hezitzen lagunduko dugulako, lortzen diren aurrerapenak ikaskideek ebaluatuko dituztelako.

Era berean, komenigarria izango da prestakuntza-prozesua ikustea ikasgelako behaketaren eta klaseko koadernoaren bitartez, bertan irakasleak anotazioak egingo baitutu, edo bestela ikasleen iritziak jasoko ditu, ondorengo fitxa bezalakoan bitartez:

Erantzun:

- \* Ikerketan erabili diren tresnak egokiak izan al dira proposatu diren ekintzak burutzeko?
- \* Zein ekintza iruditu zaizkizu interesgarrienak? Adieraz itzazu arrazoiak.
- \* Zein dira gutxien gustatu zaizkizun ekintzak? Zergatik?
- \* Zure ustez irakasleak proiektua ongi aurkeztu du eta proiektuaren burutzapenean sortu diren problemak gainditzeko lagundu du? Bere jardunean aldaketaren bat egingo al zenuke?
- \* Nolako harremana izan duzu lan-taldeko kideekin? Adieraz itzazu alderdi positiboak eta negatiboak.
- \* Beste ekintza-motaren bat egiteko gogoarekin geratu al zara? Zein ekintza?

Bukaerako edo bildumazko ebaluazioa

Helburuetan formulatu diren gaitasunen lorpen-maila ikustea ahalbidetzen du. Item desberdinen bitartez proiektu didaktikoa ikasleetara egokitu den egiaztatuko dugu, eta diseinatuta dagoen hasierako planari jarraian aldaketak sartu ahal izateko baliagarria izango da.

*Ebaluazioa orientabidearen eta irakasleen autokritikaren baliabide didaktiko gisa ulertu behar da, dagoeneko diseinatuta dauden jarduketa-planak zuzendu, bideratu edo aldatzeko tresna erabilgarri disa.*

## **EBALUAZIO-FITXA**

Ikasgelan, bai eta ikastetxetik kanpo egiten diren irteeretan ere, komenigarria da ikasleek egin behar diren lanen aurrean azaltzen duten jarrera:

Ebaluazio hau ikasle bakoitzari buruz jasotako informazioen balorazio koalitatibo gisa ulertzen da, ez ebaluazio koantitatibo gisa.

- . Parte-hartzea taldeetan, eta gizarte-harremana.
- . Zorroztasuna eta zehaztasuna ikerketa-lanetan.
- . Lanen eguneratzea.
- . Lanen aurkezpena modu ordenatuan egitea.
- . Indibidualki eta taldean egindako lanen arteko konparazioak.
- . Erabilitako material bibliografikoa.
- . Lanen orijinaltasuna.
- . Parte-hartze indibiduala edo taldean.
- . Erabilitako materialaren kontserbazioa eta arreta, norberarena nahiz ikasgelakoa izan.
- . Lanean konstante izatea.
- . Ikasgelako giro ona indartzen du.
- . Ingurugiroa errespetatzen du.
- . Lankidetzaren lanetan laguntzen du.

### 6.3.- EBALUAZIORAKO TRESNAK

Ebaluazioaren xedea lan eta ekintzen aurrean erakutsitako jarrera eta ikerketaren garapenean eta landutako eta aurkeztutako materialen kalitatean azaldutako zorrotasun eta zehaztasuna izango da.

Ebaluaziorako funtsezko tresnak ondokoak izango dira: alde batetik, prozesuaren eta egindako ekintzen behaketa eta jarraipena eta, bestetik, materialen eta egindako lanen kalitate objektiboaren egiaztapena, betiere ikaslea eta bere abiapuntua kontuan hartuz.

Zenbaitetan ebaluazioa ikasleen artean egingo da (koebaluazioa) eta beste batzuetan ikasleak berak (autoebaluazioa) egingo du. Halaber, irakasleak ebaluazio pertsonalizatu bat egingo du, lortutako helburuak, erakutsitako ahalegin, interes eta erantzukizuna eta ikaslearen aukera eta gaitasunak kontuan hartuko dituen hain zuzen ere.

<b>EBALUAZIO-FITXA</b>
------------------------

Ondoko alderdiak hartuko ditu kontuan:

- a. Gizarte-partaidetza eta -harremanak.
- b. Ikaskideekiko errespetu eta tolerantzia.
- c. Lan.giroa.
- d. Lanerako interes eta dedikazioa.
- e. Zorrotasun eta zehaztasuna ikerketan.
- f. Landutako materialen kalitatea.
- g. Egindako ekintzen eta txostenen aurkezpen egokia.
- i. Burutu beharreko zereginak izan ditzakeen zailtasunen aurrean azaldutako jarrera.
- j. Lortutako ikaskuntzen esanguratsutasuna.
- k. Ikerketa-metodoaren asimilazio- eta barneratze-maila.

*Ebaluatzeke hezi orde z hezitzeko ebaluatzen dela izan beharko dugu beti kontuan.*

Ondoren, irakasleak bere taldearen-klasearen ikasleetara, planteatutako diren lanerako eduki eta helburuetara eta informazioa biltzeko benetako posibilitateetara egokitu eta moldatu beharko dituen ebaluaziorako tresna desberdinak aurkezten dira.

Ebaluaziorako proposamenak behaketa-prozesuetara hertsiki lotuta daude, eta prozesu hauetan lanaren garapenean zehar askotariko informazioa bilduko da, batez ere lanaren eta taldearen aurrean prozedurazko eta jarrerazko alderdiei buruzko informazioa.

Zentzu honetan, proposatzen diren ekintzetariko asko ebaluazio-jarduera gisa balagarriak izan daitezke, guztietatik informazio esanguratsua jaso daitekeelako.

Ikasleek ebaluatzeke planteamendu hau bere gain hartu eta barnera dezaten ezinbestekoa da ebaluazio-irizpide hauek esplizituki ezagutzea eta beren eraketa eta garapenean pertsonalki eta taldean parte hartzea. Era honetan baliozkoak izan dira beren

ikaskuntzaren erregulaziorako. Lehenago esan den bezalaxe, lanaren garapenean zehar egiten den behaketaz gain, ebaluazioan erabil daitezkeen beste tresnak asko dira: laneko koadernoak edo dossierra, testu idatziak eta ahozko produkzioa, eduki jakin batzuei buruzko proba objektiboak, gaien azalpena, eta abar.

IZEN-ABIZENAK:

Baloratu beharreko alderdiak	Beti	Askotan	Gutxitan	Inoiz ez
<b>AUTONOMIA ETA ANTOLAKETA-GAITASUNA</b>				
Bere lan-plana egiten du.				
Denbora eta zeregina antolatzen du.				
Ekimenez parte hartzen du.				
Prozedura egokiak erabiltzen ditu.				
Hasten dituen ekintzak amaitzen ditu.				
Tailerrako lanak egiteko motibatuta agertzen da.				
Bere jarduerarengan konfidantza du.				
Lana egiten duen bitartean kontzentratuta egoten da.				
Jakinmina eta interesa adierazten du. Gauza berriak ikasten atsegin du.				
Bere lana kontrolatu eta autoebaluatzen du.				
<b>MATERIALA BILATU ETA AUKERATZEA</b>				
Leku egokietara bertaratzen da.				
Informazioa ordenatuta biltzen du.				
Zorroztasun eta zehaztasunez behatzen du.				
Informaziorik egokiena hautatzen du.				
Bildutako datuak interpretatzen ditu.				
<b>ARRAZONAMENDU LOGIKOA</b>				
Jardun baino lehen hausnarketa egiten du.				
Ideiak eta ikusitako datuak argitu eta hierarkizatzen ditu.				
Behatutako gertakariei buruzko hipotesiak ematen ditu.				
Egon daitezkeen alternatibak alderatu eta egiaztatzen ditu.				
Orokortzen du eta ondorioak ateratzen ditu.				
<b>PROBLEMAK IDENTIFIKATU ETA EBAZTEA</b>				
Ulertzen ez duena galdetu egiten du.				
Arazoak argi identifikatzen ditu.				
Arazo baten aurrean ikuspuntu desberdinak jasotzen ditu.				
Konponbide desberdinak planteatzen ditu.				
Konponbide desberdinak analizatzen ditu.				
Arazoak ongi konpontzen ditu.				
<b>TALDE-LANA</b>				
Talde-lanetan laguntzen du eta integratu egiten da.				
Karguen erantzukizunak bere gain hartzen ditu.				
Jardueran hitz egiteko edo esku hartzeko txanda itxaroten du.				
Gainontzekoen lana errespetatzen du.				
Taldearen erabakiak onartzen ditu.				
Laguntzak onartzen ditu.				
Klaseko lanaren prestakuntzan parte hartzen du.				
Karguen erantzukizunak bere gain hartzen ditu.				
Jardueran hitz egiteko edo esku hartzeko txanda itxaroten du.				
Talde-lanetan laguntzen du eta integratu egiten da.				



<b>GIZARTE-HARREMANA</b>				
Guziekin ditu harremanak				
Gainontzeko denak errespetatzen ditu				
Taldean/klasean integratuta dago				
Gainontzekoei beren zailtasun eta premietan laguntzen die				
Irakasleekin naturaltasunez erlazionatzen da				
<b>AHOZKO KOMUNIKAZIOA</b>				
Bere ideiak argi eta garbi eta modu ulergarrian azaltzen ditu.				
Elkarrizketak normaltasun oso mantentzen ditu.				
Bere pentsamendu eta sentipenak adierazi eta komunikatzen badaki.				
Modu egoki eta atseginean komunikatzen da.				
Gaiak interes eta atsegintasunez azaltzen ditu.				
<b>KOMUNIKAZIO IDATZIA</b>				
Argi eta zuzen idazten du.				
Hiztegi aberatsa eta zehatza erabiltzen du.				
Bere diskurtso idatzia logikoa da eta ongi sekuentziatuta dago.				
Ortografia- eta sintasi-hutsegiteak saihesten ditu.				
Bere idazkietan irudimena eta sormena erakusten ditu.				
<b>AUTOIRUDI-OHITURAK</b>				
Bere burua gizalegez eta orekarekin baloratzen daki.				
Bere posibilitateengan konfidantza du.				
<b>INGURUNEAREN ARRETA ETA ERRESPETUA</b>				
Pupitreak, hormak eta materialak errespetatzen ditu.				
Bere laneko gunea garbi eta ordenatuta mantentzen du.				
Ikastetxearen eta ingurunearen egoera egokian laguntzen du.				
Gainontzekoen jabetzakoak diren gauzak errespetatzen ditu.				

<b>IKASLEAREN AUTOEBALUAZIOA</b>
----------------------------------

<b>IZENA:</b> <b>DATA TALDEA JAKINTZAGAIA</b>
--

Baloratu beharreko alderdiak	beti	askotan	gutxitan	inoiz ez
Lanak garbian eta ordenatuta aurkezten ditut.				
Lana adierazitako denboraren barruan amaitzen dut.				
Erantzukizunak onartzen ditut.				
Araua errespetatzen ditut.				
Gainontzekoen ideiak errespetatzen ditut.				
Dagokidan lana burutzen dut.				
Iturriak eta informazioa hautatzen ditut.				

\*\*\*\*\*

<b>IZENA:</b> <b>DATA TALDEA JAKINTZAGAIA</b>
--

1.- Zer moduz moldatu zara lan-prozesuan?. Adieraz itzazu zure arreta gehinbat erakarri duten alderdiak.
--

2.- Aurkitu dituzun zailtasunak zehaztu
---

3.- Adierazitako zailtasun horien guztien artean, zein izan da arazo gehien sortu dituen? Nola konpondu duzu?
---

4.- Zein aldaketa sartuko zenituzke garatu den proposamenean, eta zergatik?
---

**PROIEKTUA EBALUATZEKO BEHAKETA-JARRAIBIDEA<sup>1</sup>**

IKASLEA..... KURTSOA.....

Ebaluazioa ..... Data .....

<b>PROZESU INDIBID.</b>	<b>Burutu gabeko alderdia</b>	<b>Gutxi menperatu du</b>	<b>Oinarrian menperatu du</b>	<b>Menperatutako alderdia</b>	<b>Erabat menperatu du</b>
<b>Gaiaren hautapena</b>	Gaian huts egin du	Proposatutakoari jarraitu dio	Alderdiak begiratu ditu	Jakin nahi duen gaia aukeratu du	
<b>Gidoia</b>	Ez ditu alderdiak pentsatu	Zerrenda bat egin du, aztertu gabe	Alderdi errazak planteatu ditu	Idea asko hartuz egin du gidoia	Gainera aurkitu duen informazioarekin aztertu du
<b>Informazio bilaketa</b>	Ez du bilatu, asmatu egin du	Informazioa bilatu du, balio ote zuen begiratu gabe	Informazio gutxi bilatu du	Nahiko informazio egoki bilatu du	Bilatu eta gainera bere erabilgarritasuna egiaztatu du
<b>Plangintza</b>	Amaieran egin du bukatu gabe	Lana egin ahala gauzatu du	Plan bat planteatu du	Proposatutakoarekin nahiko koherentea izan da	Gainera plana aldatu du behar izan duenean

<sup>1</sup> A. Noguerolek bere "Técnicas de aprendizaje y estudio" libururuaren 178. orrialdean proposatutako lan idatzien behaketa-jarraibidearen egokitzapena. Aprender en la escuela, Colección el lápiz nº 8, Editorial Graó, Barcelona, 1994.

<b>EDUKIA</b>	<b>Burutu gabeko alderdia</b>	<b>Gutxi menperatu du</b>	<b>Oinarrian menperatu du</b>	<b>Menperatutako alderdia</b>	<b>Erabat menperatu du</b>
<b>Informazio-iturriak</b>	Bakarra eta kopiatua	Baliorik gabekoak eta kopiatuak	Gutxi, baina baliozkoak	Nahikoak eta anitzak	Eta gainera orijinalak
<b>Gaiaren ulermena</b>	Ez du ia ezer ulertu	Zenbait errakuntza garrantzitsu	Oro har ongi, errakuntze-kin	Errakuntza gutxi	Errakuntza garrantzitsu bakar bat ere ez
<b>Agertu diren elementuak</b>	Xehetasunak soilik	Xehetasunak gutxi erlazionatutako oinarritzko informazioarekin	Ongi egituratutako oinarritzko informazioa	Informazio ugari eta ongi antolatua	Funtsezko elementu guztiak eta beste batzuk orijinalak
<b>Lanaren egitura</b>	Arretarik gabe eta osatugabea	Zatiren bat salbatzen da	Gutxieneko elementuak daude	Oro har, ongi	Oso koherentea
<b>Ondorioak</b>	Ez daude	Gutxi eta funtsik gabekoak	Gutxi baina egokiak	Oinarritzkoak eta egokiak	Osatuak eta oso egokiak
<b>Iritzi pertsonalak</b>	Ez daude	Gutxi eta gaizki erlazionatuak	Daudenak egokiak dira	Daudenak alderdi desberdinetara egokitzen dira	Batzuek gainera orijinalak dira
<b>Aurkibidea</b>	Ez dago	Elementu asko falta dira	Oinarritzko elementuak agertzen dira	Elementu guztiak agertzen dira errakuntza gutxirekin	Osatua eta koherentea
<b>Bibliografia</b>	Ez dago	Oso gaizki aipatzen du	Dagoena ongi aipatuta dago eta oinarritzkoa da		Ongi dago eta anitza da

<b>IDAZKERA</b>	<b>Burutu gabeko alderdia</b>	<b>Gutxi menperatu du</b>	<b>Oinarrian menperatu du</b>	<b>Menperatutako alderdia</b>	<b>Erabat menperatu du</b>
<b>Testu-motak</b>	Nolanahi idazten du	Ez ditu testu-motaren konbentzioak errespetatzen	Konbentzio batzuek bakarrik jarraitzen ditu	Oro har, zuzena	Koherentea eta konbentzioei jarraiki
<b>Testuaren zatiak</b>	Ez dira zati desberdinak nabaritzen		Testuaren zati bakoitza identifikatzen da baina errakuntzekin	Idazkera zati bakoitzera egokitzen da	
<b>Paragrafoak</b>	Ez daude	Zatiketak daude baina okerrak dira	Irakur daiteke, errakuntzak izan arren	Ia paragrafo denak zuzen daude	Ez dago errakuntza nabarmenik
<b>Hiztegia</b>	Ez da kontuan izan	Oso zati gutxi salbatzen dira	Zehazkabetasun edo iluntasunak eta errakuntza gutxi daude	Ongi irakurtzen da, errakuntza gutxi ditu	Ongi dago eta hitzak bilatu dituela nabari da
<b>Puntuazioa</b>	Ez dago	Gutxi eta errakuntza askorekin	Irakur daiteke	Gehiengo ongi, akats gutxirekin	Estilo egokiaz erabiltzen du
<b>Ortografia</b>	Hutsegiteak daude lan osoan	Gehiengoak hutsegite asko ditu, oinarritzkoak barne	Zuzenketan hutsegiteak daude, baina oinarritzko gutxi	Zuzenketa ikusten da eta oinarritzko gutxi daude	Hutsegite gutxi eta salbuespenekoak

**IKASLEEN KOEBALUAZIOA**

## TALDEA OSATZEN DUTENEN IZEN-ABIZENAK

Baloratu beharreko alderdiak	beti	zailtasunez	ez dugu lortu
Zeregin desberdinak txandaka hartu ditugu gure gain			
Taldearen ondorioak idatzi egin ditugu			
Lan osoa taldean antolatu dugu			
Taldeko kide guztiei hitz egiten utzi eta entzun egin diegu			
Gainontzekoen iritzia errespetatu eta onartu egin ditugu			
Taldeak hartu dituen erabakiak eta konpromisuak onartu egin ditugu			

**TALDE-JARDUERA BATEN EBALUAZIO INDIBIDUALA**

1.- Taldeko kideek lanean izan dute parte-hartzea honako hau izan da:

---

<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
<b>(minimoa)</b>				<b>(maximoa)</b>

2.- Taldeko kide guztiek lanean azaldu duten interesa honako hau izan da:

---

<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
<b>(minimoa)</b>				<b>(maximoa)</b>

3.- Taldeko kide guztiek beste kide batzuen ideia eta iradokizunei dagokienez azaldu duten interesa honako hau izan da:

---

<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
<b>(minimoa)</b>				<b>(maximoa)</b>

4.- Taldeko kide guztiek beren ideiak libreki adierazteko izan duten askatasuna honako hau izan da:

---

<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
<b>(minimoa)</b>				<b>(maximoa)</b>

5.- Lana egiteko arreta, oro har, honako hau izan da:

---

<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
<b>(minimoa)</b>				<b>(maximoa)</b>

<b>IRAKASLEEN AUTOEBALUAZIOA</b>
----------------------------------

Baloratu beharreko alderdiak	Ez, inoiz ez	Batzutan	Ia beti	Bai, beti
Giro lasaia eta motibagarria sortzen lagundu dut.				
Arakaketa eta ikerketa erraztu dut.				
Nire funtzioa dinamizatzaileragoa izan da zuzentzailea baino.				
Entzun eta behatzeko funtzioa burutu dut.				
Ikaslearen okerrak errespetatu egin ditut eta aurrera jarraitzeko motibatu dut.				
Klasearen dinamikak ikasleari segurtasuna eman dio bere autonomian aurrerantz egiteko.				
Ikasleen izpiritu kritikoa sustatu dut.				
Adierazpen librea sustatu dut.				
Lana ikaslearen alde aurreko ezagupenak abiapuntutzat hartuz antolatu dut.				
Aniztasunaren trataera irakatsi eta ikasteko prozesuaren une desberdinetan planteatu diot nire buruari.				
Erabilitako ikasmaterialen egokitasuna ebaluatzen dut.				
Proposatutako diren helburuak eta edukiak oso-osorik lortu diren ebaluatzen dut.				
Jarduerak proposatutako edukiei erantzun dieten baloratzen dut.				
Jarduerak ikasle batzuen hezkuntza-premia berezietara egokigarriak izan daitezen ahalegindu naiz.				

VÁZQUEZ CAZÓN, M.I. (1995). Revista Bordón 47 (4). Págs. 434-442. eta CEI-IDC (1994-95). Respuesta a las Necesidades Educativas Especiales. Págs. 109-110.



<b>IRAKASLEAREN KOADERNOA</b>
-------------------------------

<b>DATA TALDEA JAKINTZAGAIA PROIEKTUA</b>
---

.- Antzeman ditudan arazoak eta zailtasunak:
--

.- Kausa posibleak:
---------------------

.- Honako aldaketa hauek sar ditzaket:
--

.- Honako alderdi hauek mantenduko nituzke:
---

.- Ondorengo abantaila hauek eskaintzen dituztelako:
--

\* Hausnarketa-fitxa hau egokitzapen batzuek egin ondoren baliagarria izan daiteke, era berean, ikasleek beren iritziak analizatu eta idatziz azal ditzaten

JAKINTZAGAIA	TALDEA		DATA
PROIEKTUA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENA
<b>BESTE ZENBAIT OHAR:</b>			

## 7.- GIZARTE- ETA KULTURA-INGURUNEA IKERTZEKO TAILERRARAKO BALIABIDEAK

Gizarte- eta Kultura-Ingurunea Ikertzeko Tailerrarako baliabideak aurki daitezkeen Erakunde nagusiak ondoren adierazten diren hauek dira:

- . Udalak
- . Probintzi Aldundiak
- . Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua
- . Deustuko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua
- . Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua
- . Museoak
- . Herriko Zentroak
- . Bibliotekak - Hemerotekak
- . Kultur Aretoak
- . Herriko eta inguruneko eraikin ospetsuak
- . Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegia (IIHII)
- . Pedagogi Aholkutegiak (PAT)
- . Gobernu kanpoko erakundeak, hala nola:
  - \* Cáritas
  - \* Gurutze Gorria
  - \* Intermón
  - \* Manos Unidas
  - \* Greenpeace
  - \* ...

## 8.- ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

- AJUNTAMENT DE BARCELONA. (1994). Barcelona a l'escola. Programa d'activitats escolars per al coneixement de la ciutat. Curs 1993-94. Barcelona.
- BENEJAM ARGUIMBAU, P. (1989): Geografía y educación. Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles, nº 8. Madrid.
- CALAF MASACHAS, R. (1994): Didáctica de las Ciencias Sociales. Oikos-Tau. Barcelona. 247 págs.
- CLAVER, I. y otros (1984). Guía para la elaboración de estudios del medio físico, contenido y metodología. CEOTMA - M.O.P.U. 572 págs.
- CRISTÓBAL, J.M. y MILLÁN, J.M. (1991): Bilbao y su ría. Ayuntamiento de Bilbao. 183 págs.
- CRISTÓBAL, J.M. y MILLÁN, J.M. (1994): Vivir el entorno. COPs y Ayuntamiento de Bilbao. 35 págs.
- CUADERNOS DE ADARRA: La investigación del entorno. Adarra Colectivo Pedagógico.
- EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO (1992). Diseño Curricular Base de Ciencias Sociales, Geografía e Historia de la Comunidad Autónoma Vasca. Servicio de Publicaciones. Vitoria - Gasteiz. 137 págs.
- EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO (1994). Diseño Curricular Base de Bachillerato: Modalidad de Humanidades y Ciencias Sociales. Servicio de Publicaciones. Vitoria - Gasteiz. 304 págs.
- EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO (1994). Orientaciones generales para el desarrollo del Proyecto integrado. Dirección de Renovación Pedagógica, Dirección de Formación Profesional e Instituto para el Desarrollo Curricular y la Formación del Profesorado. Vitoria - Gasteiz. 84 págs.
- GARCÍA HOZ, V. y otros (1996): Enseñanza de las Ciencias Sociales en la Educación Secundaria. Rialp. Madrid. 408 págs.
- GONZÁLEZ, R, y LATORRE, A. (1987): El maestro investigador. La investigación en el aula. Graó. Barcelona. 52 págs.
- HABERMANS, J. (1988): La lógica de las Ciencias Sociales. Tecnos, Madrid. 512 págs.
- MANTEROLA, A, (1994): La familia tradicional de Bizkaia. Colección Temas Vizcaínos, nº 240. Bilbao Bizkaia Kutxa. Bilbao. 58 págs.

- MARTÍN MARTÍN, P. (coord) (1993): Ejemplificaciones de unidades didácticas para el área de Geografía, Historia y Ciencias Sociales (Educación Secundaria Obligatoria). Síntesis. Madrid. 189 págs.
- MARTÍN, E. (1985): Los juegos de simulación en EGB y BUP. Universidad Autónoma. Madrid. 94 págs.
- MASSANÉS, R. y MIRALLES, J. (1995). Ecología de cada día. Blume, Barcelona. 179 págs.
- MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y CIENCIA.(1992) Secundaria Obligatoria: Ciencias Sociales. Servicio de Publicaciones del MEC. Madrid (Cajas Rojas). 342 págs.
- MERINO, F. J. y OTROS (1995): Aspectos didácticos de Geografía e Historia: 9. Zaragoza: I.C.E. Universidad de Zaragoza. 233 págs.
- NOGUEROL, A.(1994). Técnicas de aprendizaje y estudio. Aprender en la escuela. Colec. El lápiz nº 8. Graó. Barcelona. 188 págs.
- NOËL LUC, J. (1981): La enseñanza de la Historia a través del medio. Cincel Kapelusz. Madrid.
- OGALDE, I y BARDAVID, E. (1991): Los materiales didácticos: Medios y recursos de apoyo a la docencia. Trillas. Mexico.
- Orden de 16 de julio de 1996 por la que se regulan las posibilidades de opción en el currículo de Educación Secundaria Obligatoria (BOVP nº 152, viernes 9 de agosto, 1996).
- Resolución de 24 de julio de 1996 por la que se publican los currículos de las materias optativas en la Educación Secundaria Obligatoria (BOVP 1996)
- POZO, I. (1985). El niño y la historia. Servicio de publicaciones del MEC, Madrid. 32 págs.
- TONUCCI, F. (1990): La escuela como investigación. Graó. Barcelona. 82 págs.
- VV.AA. (1994). Los procedimientos en Historia. Revista Iber nº 1. Graó Barcelona.
- VV.AA. (1994). Corresponsabilidad. 64 págs. en euskera y 64 págs. en castellano.
- VV.AA. (1974). Oficios tradicionales Diputación Foral de Gipuzkoa (Dpto. de Economía). Gipuzkoa.
- VV. AA. (1992). Mapas conceptuales. Una técnica para aprender. Narcea. Madrid. 208 págs.
- VEGA, E. de (1992). La mujer en la historia. Monografías. Anaya. Madrid. 96 págs.

ZABALA, A. (1992): Los Proyectos de Investigación del Medio. Los problemas reales como eje estructurador de los procesos de enseñanza-aprendizaje, en la revista Aula, nº 8, noviembre. Págs. 17-23.

## 9.- ERASKINA: IKERKETA PROIEKTUA

### IKERKETA PROIEKTUA

#### HIRUHILEKOA:

Hasiera data:

Entrega data:

#### IKASLEARENTZAKO DOKUMENTUA

##### EDUKIA

1. Gaia: Gomendio orokorrak eta abiapuntua.
2. Gaia: Proiektua egiteko baldintzak.
3. Gaia: Proiektuaren oroitza-txostena aurkezteko era.
4. Gaia: Ebaluazio irizpideak eta jarraipideak.

## 1.- NIRE HERRIKO JAIK HIRUROGEIKO HAMARKADAN

- Lan Proiektuak gai honen inguruan izan behar du: herriko jaien ezaugarriak duela 25 urte; zein datatan ospatzen ziren, nortzuek antolatzen zituzten, non, zein motatako ekitaldiekin...
- Argiak izan behar duzue eta datu guztiak zehazki eman, dokumentuetan aurki ditzakezuen informazio guztiak egokiro hautatuz.
- Baliabide garrantzitsuak erabil ditzakezue lana garatzerakoan: (denborak, ikerketa-lekuak...), jaiak egitearen kausa eta arrazoiei buruzko hipotesiak egin, hurbileko beste jai mota batzuekin alderatu, informazio bilketa diseinatu, bilduriko datu guztiak antolatu eta laburbildu, etab.
- **Gomendio orokorrak**

- Udaletxean, kultur etxean eta zuen herrian diren mota horretako instituzioetan lor dezakezu informazio zuzena. Leku horietara galdetzeraz eta informazio bila joan aurretik, defini ezazu zehazki zer galdetu eta jakin nahi duzun, eta antola ezazu aurretiaz bisita.
- Gai honetarako beharrezko izango duzu, baita, garai horretako jaiak bizi izan dituztenengandik informazioa zuzenean jasotzea: etxeko edo lagunengandik, jai haiei buruzko informazioa eta esperientzia dutela uste duzun herriko jendearengandik...
- Egunkari ebakinak (baldin badira), jaietako programak, aldizkariak bildu.

### - Abiapuntuak

- Jai haiek egiteko zeuden arrazoi kultural, erlijiosoei... buruzko hipotesiak egin, baita, halaber, jai horiek urtesasoi jakin horretan egiteko arrazoiren bat bilatzen ahalegindu.
- Deskriba itzazu garai hartan antolatzen ziren ekitaldi motak, ea jardueretarako egun bereziak zeuden...
- Saia zaitezte aztertzen ea jaiok herriko tradizio ludiko, erlijioso edo sozioekonomikoren batzuk jasotzen zituzten.
- Deskriba eta identifika ezazu Jaiak herriko zein lekuetan garatzen ziren nagusiki, baita herriko jendeak jai horietan parte hartzeko zituen era ezberdinak.
- Seinala itzazu argi eta garbi jai horiek inguruko beste jai batzuetatik ezberdintzen zituen alderdi eta ekitaldi tipiko eta bereizgarrienak.

## **2.- IKERKETA PROIEKTUA EGITEKO BALDINTZAK**

- Hautaturiko gaiari buruzko azterketa eta eztabaidaren ondoren eta gaiaren zein alderdi edo alderdiak landuko diren erabaki ondoren, jakinaraz iezaiozu irakasleari.
- Lehenengo eta behin, lan plangintzari buruzko gidoi bat egin beharra dago eta irakaslearekin kontsultatu, honek orientabideak eman diezazkizuen.
- Proiektua hitzarturiko datan aurkeztu behar duzue, ondoren adierazten den formatoaren arabera. Data horretara arte dagoen tartean, lantzen diharduzuen dokumentuaren zatiak aurkeztuz joango zareten zenbait data finkatuko dira.
- Lanaren garapenean zailtasunak edo arazoak badituzue, kontsultatu eta eska itzazue orientabideak beldurrik gabe.
- Lan hau garatzerakoan, ondoko hau hartu behar duzue kontutan: zehaztasun jakin batez egitekoa dela une bakoitzean, inor gehiegi ez molestatzen saiatuz; eta lana gauzatzean ordena eta txukuntasuna izan behar duzuela, eta azalpenak ematerakoan argitasuna.

## **3.- PROIEKTUAREN OROITZA-TXOSTENA AURKEZTEKO ERA**

Oroitza-txostenak ondoko zatiok izango ditu:

### 1. Azala:

Proiektuaren izenburu zehatza eta parte hartu duten ikasleen izenak -eta zein taldetakoak diren- agertu beharko du.

### 2. Aurkibidea:

Lana zeintzuk ataletan banatu duzuen adierazi, orrialdeak seinalatuz.

### 3. Testu nagusia:

Lana bera garatzen duzuen zatia da. Zati garrantzitsuena, hain zuzen, atal desberdinetan sailkatua eta azalpenerako ordena jakin bat izan beharko duena.

### 4. Ondorioak:

Lanaren alderdi nagusiak eta egindako aurkikuntzak lerro gutxitan laburbilduta emango direlarik.

### 5. Eranskina:

Erabili dituzuen materialak edo materialon fotokopiak sar ditzakezue (argazkiak, programak, notiziak,...).



#### 4.- EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Proiektu hau ebaluatzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek dira:

**a) Lanaren antolamendua:**

- Zati eta eginbehar argiak dituen lan plangintza landu al duzue?
- Zehaztu al dira denborak? Bete al dira epeak?

**b) Edukia:**

- Informazio eta datu ezberdinak, kopia hutsa egin gabe, erabiltzen al ditu?
- Irakurketa errazteko moduan antolatu eta egituratzen al du informazioa?
- Sartzen al du informazio grafikorik (argazkiak, programak, marrazkiak,..)?.

**c) Aurkezpena:**

- Atal argiak eta justifikatuak al ditu testuaren garapenean?
- Uzten al ditu marjinak?
- Ongi eta txukun aurkeztuta al dago?
- Seinalaturiko atal guztiak sartzen al ditu?

**d) Talde-lana:**

- Hartu al dira kontutan taldekide guztien iritziak eta proposamenak?
- Zehaztu al dira egitekoak eta erantzukizunak, lanaren banaketa eginez?

- 
- 
- 
-

**PROIEKTUAREN JARRAIPENERAKO FITXA**

DATA .....

IKASLEA: .....

<b>G A R A T U T A K O A</b>	<b>Orain arte egin duzuna eta ikasi duzuna</b>
	_____
	_____
	_____
	_____
	<b>Argi geratu ez zaidana edo aurkitu ditudan arazoak</b>
	_____
	_____
	_____
	_____


<b>B E H A R R E Z K O A  D E N A</b>	<b>Hobetzeko, nik zera egin dezaket:</b>
	_____
	_____
	_____
	_____
	<b>Irakaslearen laguntza jaso dezaket</b>
	_____
	_____
	_____

**PLAN PERTSONALAREN BURUTZAPEN ETA KONTROLA (AUTOIKASKUNTZA)**

Zer egingo dut (PLANA)	Noiz (DENBORA)	Nola (BALIABIDEAK)

## **II. ZATIA: PROIEKTU DIDAKTIKOAK**

## PROIEKTU DIDAKTIKOA: “NEURE HISTORIA ETA NEURE FAMILIARENA”



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa

José María Millán Estébanez  
José Miguel Cristóbal Fraile

## 1.- SARRERA

“Neure historia eta neure familiarena” proiektu didaktikoak denbora eta historia ulertu eta kontzeptualizatzen eta norberaren eta familiaren nortasuna garatu eta sendotzen zuzendutako hainbat hezkuntza-jardura garatuko ditu ikerketa-giro batean.

Azterketa eta ikerketaren xedea famili ingurunea izango da (birraitona-amonekin edo aitona-amonekin hasi eta birbilobekin edo bilobekin amaituz, kasuak kasu) eta, kasu gehienetan, gaurko egunetik XX. mendeko lehen hamarkadetara bitarteko denbora-tartea barne hartuko da.

Lan-metodologia iturri desberdinen (ahozkoak, idatzizkoak, grafikoak...) ikerketan oinarrituko da. Dena den, funtsezkoenak ahozko iturriak izango dira eta, hauek, senideek euren oroitzapenekin ikasleei egindako iruzkin eta kontaketan bitartez lortu behar dira.

Ikertu beharreko gai historikoak norberaren eta familiaren bizitzako gertaera nagusiei buruzkoak izan daitezke, bai eta ondoko hauek ere: ohitura eta bizimoduek, lanak, arropak eta abarrek denboran izan duten bilakaera, aldaketa eta iraunkortasuna politikan...

Proiektu didaktikoa ikasleen gurasoekin alde aurretik egindako bilera batekin has daiteke eta bertan, hauen inplikazioa bilatuz, hezkuntza-helburuei eta egin beharreko jardura nagusiei buruz hitz egingo da.

Norberaren eta familiaren Ingurunearen gai historikoan sakonduz gero, proiektu didaktiko honek Familiaren Historiako Tailerran aurreikusitako 25 orduak osorik barne har ditzake. Bestela, irakasle-taldeak zehaztu beharreko hainbat unitate didaktikotan sekuentziatu eta egituratu daitezke.

## 2.- HELBURU DIDAKTIKOAK

1. Norberaren historiaren ezagutzan sakontzean norberaren eta familiaren nortasuna arian-arian sendotzea.
2. “Denbora historikoaren” nozio eta ezaugarri nagusiak ulertzea: kronologia, segida kausala eta denbora-jarraitasuna.
3. Ikerketa errazak egitea historialariaren oinarrizko metodologia zientifikoa erabiliz: hipotesia; iturri dokumental eta grafikoetan eta inkestetan miatzea; emaitzak egiaztatzea; komunikazioa.
4. Espazio desberdinetako gertaera edo egoeren arteko aldiberekotasuna ezartzea.
5. Norberaren etapa desberdinak berrituz friso kronologiko bat egitea, eta familiako azken lau belaunaldien zuhaitz genealogikoa lantzea.
6. Dokumentu grafikoak, materialak, ahozkoak edo idatzizkoak jasoko dituen familiaren historiari buruzko dossier bat planifikatu eta lantzea.

### 3.- EDUKIAK

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<p>*Giza gorputzaren aldaketa fisikoak.</p> <p>*Bizitzaren etapak adin-taldean arabera: haurtzarora, gaztarora, helduarora, zahartzarora.</p> <p>*Gustu- eta zaletasun-aldaketak eta hauek adinekin duten erlazioa.</p> <p>*Denbora historikoa: iragana, oraina eta etorkizuna.</p> <p>*Denbora-neurriak: urtea, hamarkada, mendea.</p> <p>*Iturri historikoak: ahozkoak, idatzizkoak, grafikoak.</p> <p>*Aztarna materialak.</p> <p>* Norberaren historia eta familiarena.</p> <p>* Norberaren friso historikoa.</p> <p>* Zuhaitz genealogikoa.</p>	<p>* Azterketa eta ikerketaren xedea identifikatzea: neure historia eta neure familiarena alderdi jakin batzuetan.</p> <p>*Iturri desberdinetatik familiaren historia eta ohiturei buruzko informazioa lortzea: ahozko iturriak, idatzizkoak, grafikoak eta abar.</p> <p>*Elkarrizketa, inkesta, behaketa eta ikus-entzunezko erregistroen bidez familiaren historiari buruzko ikerketa eta landa-lana egitea.</p> <p>* Familiaren gertaera garrantzitsuei buruzko erregistro eta datu-bilketa familiaren historia berritzeko.</p> <p>*Familiaren barruan norberaren taldearen ezaugarri nagusiak ezagutzea.</p> <p>*Inguruneko eta familiaren historiako gertaera historikoen arteko kausa-efektu erlazioak identifikatzea.</p> <p>*Ikaslearen, aitaren, aitonaren eta abarren inguruneko gizartean izandako aldaketak eta iraunkortasunak analizatzea.</p> <p>* Material osagarriak lantzea: panelak, horma-irudiak, grafikoak, frisoak eta zuhaitz genealogikoak, guztiak azalpen-izaerakoak.</p> <p>* Familiaren historiaren alderdi batzuei (arropa, etxebizitza, automobila...) buruzko txostenak landu eta aurkeztea.</p> <p>* Egungo eta duela ehun urteko bizimoduei buruzko mahainguruak, eztabaidak eta batzarrak egitea, entzuten, iritziak azaltzen, hitz egiteko txanda errespetatzen eta ondorioak ateratzen jakiteak duen garrantzia kontuan hartuz.</p>	<p>*Lanean zorrotza izatea eta gaitasuna hobetzeko prest egotea (hobetzeko asmoa).</p> <p>*Familiaren nahiz gizartearen oraina interpretatu eta ulertzeko iturri gisa ingurunearen errealtate sozialaren ikerketarekiko, familiaren iraganarekiko eta norberaren sustraiekiko interesa azaltzea.</p> <p>*Familiaren bertan eta hurbileko ingurunean aurreko belaunaldietako emakumearen egoera nolakoa zen baloratzea (egungoarekin konparatuta).</p> <p>*Adinez nagusiekiko errespetua izatea eta adinagatiko diskriminazio oro gaitzestea.</p> <p>*Familiako kide bakoitzak betetzen dituen funtzio desberdinak baloratu eta hauekiko errespetua izatea.</p> <p>*Familiaren ezagutza historikoa errazteko ikerketa eta esperientziak elkarren artean prestatzearen aldeko jarrera erakustea.</p> <p>*Euskal Herriko funtsezko kultur formen biziraupen-arazoekiko sentikorra izatea eta forma hauei eusten eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen laguntzeko prest egotea.</p>

## 4.- METODOLOGIA, IKERKETA-PROZESUA ETA EKINTZAK

Proiektu didaktiko honetan erabilitako metodologiak ikasleek euren eta familiaren historiaren inguruan planteatzen dituzten egoera problematiko eta galderak ebazteko beharrari erantzuten dio norberaren eta familiaren historia berritzea eta bakoitzaren nortasuna sendotzea erraztuko duten ikerketa-ekintzen bidez.



Jarraian, dokumentazio, ikerketa eta komunikazioko teknika batzuek aurkezten dira, eta iritzia ezagutzeko eta Gizarte- eta Kultura-ingurunea Ikertzeko Lantegia lantzeko datuak lortzeko oso erabilgarriak izango dira.

### 4.1.- ELKARRIZKETAREN TEKNIKAK

Elkarrizketa, funtsean, elkarrizketa egiten duen pertsonak eta elkarrizketatuak gai bati buruz egiten duten solasaldian datza, zuzeneko informazioa lortzeko helburuarekin. Itxia izan daiteke, galdekizun bati jarraituz (galdera-erantzuna), edo irekia, gaiak planteatuz edo erantzuteko esparru edo eremuen iradokizuna eginez, esku-hartzeak askatasun gehiagorekin egin daitezten erraztuz.

#### NOLA EGIN BEHAR DA ELKARRIZKETA BAT?

##### A.- ALDEZ AURREKO PRESTAKETA:

1. Taldea eratzea. Elkarrizketa pertsona bakar batek egin dezake, baina komenigarria izango da bizpahiru ikaslek osatutako taldea eratzea.
2. Gaia aukeratzea. Ikasleentzat interes handia duen gai bat aukeratuko da.
3. Elkarrizketatu beharreko pertsona hautatzea. Elkarrizketatu beharreko pertsona hautatuko da, aztertuko den gaiari aditua edo berau ondo ezagutzen duena izango dena.
4. Dokumentazioa prestatzea, aztertu beharreko gaiari eta elkarrizketatu beharreko pertsonari buruzkoa, galderak behar bezala bideratzeko, eta era berean elkarrizketa egiteko beharrezkoak diren materialak prestatzea (galdekizuna, magnetofonoa, bideoa, eta abar.).



## **B.- GALDEKIZUNA**

Elkarrizketa behar bezala egiteko beharrezkoa izango da gidoi bat prestatzea.

Oso garrantzitsua izango da edukiari buruzko alderdiak kontuan izatea eta galdera-kopurua eta denbora definitzea.

- \* Edukiari dagokionez, aldez aurreko dokumentazioak eman dizkigun datu eta informazio azpimarragarriak kontuan izan beharko dira, bai eta bideratuta dagoen jendearen mentalitatea ere.
- \* Moduari dagokionez, zenbat galdera egingo diren eta nolakoak izango diren (irekiak, itxiak...) eta elkarrizketak zenbat iraungo duen aztertu eta erabakiko da.

## **C.- ELKARRIZKETATZEAREN EGINTZA**

Elkarrizketa egiten denean alderdi jakin batzuek kontuan hartu behar dira, hala nola: “sarrera”, “galderak”, “estiloa” eta “erantzunak”.

**Sarrera.** Komenigarria da elkarrizketa hasterakoan elkarrizketatuaren aurkezpen bat egitea, bere pertsonari, lanbide edo jarduerari eta gaiarekin loturiko gertakari esanguratsuei buruzko datuak bilduz.

**Galderak.** Sekuentzia logiko eta koherente bati jarraituz egin behar dira: horrela, esate baterako, orokorra denetik partikularra denera, garrantzitsua denetik pasadizozkoa denera, atalen edo gaien arabera ordenatuak.

**Estiloa.** Galderak argiak eta zehatzak izango dira, errespetuz egingo dira, gaiarekin erlazionatuta egongo dira, ordenatuta... Kasu batzuetan galdekizun ireki bat egin daiteke, bertan erantzunak emateko askatasun handiagoa emanez.

**Erantzunak.** Zehatz-mehatz jaso behar dira, ahal izanez gero hitzez hitz. Magnetofonoa edo bideoa erabil daiteke.

## **D.- IDAZKUNTZA**

Behin elkarrizketa transkribatu ondoren, hau berrantolatu eta ordenatu egin daiteke, erantzunak errespetatuz, beti ere ordena eta argitasun handiagoa lortzeko helburuarekin.

Komenigarria da elkarrizketaren idazkuntza aztertu den gaiari buruzko laburpen txiki batekin amaitzea. Laburpen hau interpretaziozkoa izango da, ez da hitzez hitzekoa izango, makulu-hitzak zuzenduko dira, interesatzen ez diren digresioak ezabatuko dira, erantzuna elkartu edo zatituko dira eta, azkenik, eskertza edo agurra egingo da, pertsona bakarra denean eta bere iritziak garrantzi handia duenean.

Elkarrizketatuari elkarrizketaren behin-betiko idazkuntza erakustea komeni da, erantzunen bat ñabartu, zabaldu... nahi baldin badu aukera izan dezan.

**ELKARRIZKETAREN BALORAZIOA****(1etik 10era bitarteko balorazioa).****a) Landutako gaiari buruz:**

- Oso interesgarria izan da
- Erantzun batzuek harrিতuta utzi naute
- Ordenatuta eta koherentziaz aztertu da
- Arazoak argitu egin dira
- Gaiari buruzko ikuspegi globala neregianatu dut

**b) Elkarrizketa egiten duen pertsonari buruz:**

- Bere jarduera, tonua eta esku-hartzea oso ona izan da
- Galderak argiak eta zehatzak izan dira
- Parte-hartzea bapatekoa izan da, baina diskretoa
- GaiA sakonki aztertu da
- Zuzenduta zegoen publikoa kontuan izan da

**c) Elkarrizketa jaso duen pertsonari buruz:**

- Zehaztasunarekin eta argi eta garbi erantzun du
- Lengoia egokia erabili du
- Bere jarrera lasaia eta adiskidetsua izan da
- Galderaren bat saihestu egin du

**"PROFESIONAL BATI" EGITEKO ELKARRIZKETAREN EREDUA****GALDEKIZUNA**

\* Izena, adina (diskreziorik eza ez bada): .....

\* Lanbidea: .....

1. Zergatik erabaki zenuen lanbide honetara dedikatzea? .....

.....  
.....

2. Zer prestakuntza eta/edo ikasketak egin behar izan zenituen? (praktikak barne) .....

.....  
.....

3. Zein diferentzia aurkitu dituzu zure lanbideari buruz pentsatzen zenuenaren eta benetan denaren artean? .....

.....

4. Zein dira lanaren alderdirik atseginenak? .....

.....  
.....

5. Eta eragozpenik handienak? .....

.....  
.....

6. Zure lanbideko zein alderdik eragiten dute zure bizitza pribatuan? .....

.....  
.....

7. Etorkizuna duen lanbidea al da? .....

.....  
.....

8. Zure lan-jardun bat kontatuko al zenuke? .....

.....  
.....

9. Zein aholku emango zenioke lan honetara dedikatu nahi duen pertsona bati? .....

.....  
.....



## 4.2.- INKESTAREN TEKNIKAK

Inkesta edo iritzi-azterketa galderen bitartez informazioa biltzean datza, talde baten ezaugarriak edo iritziak ezagutu eta populazio guztira orokortu ahal izateko. Gizarte-ikerketan gehienbat erabiltzen den modalitate bat da.

Ikertu beharreko egoera edo problemarekin erlazionatuta dauden pertsonen zuzeneko iritzia ezagutzeko bitarteko paregabea da.

### NOLA EGIN INKESTA BAT?

#### A.- HASIERAKO FASEA

Lehenengo urratsa gizarte-ikerketako esparrua eta erantzun nahi diren galderak argi eta garbi mugatzea izango da.

1. Galdera planteatzen da eta ezagutu nahi dugun problema aukeratzen da. Esate baterako: zertanerabiltzen dute beren denbora libre nire adineko neska-mutilek?
2. Inkesta zein laginetan egingo den zehaztea, hau da, zein populazio-zatiri egingo zaion zehaztea. Esate baterako: ikastetxeko edo beste ikastetxe batzuetako 100 pertsona, taldeak sexua kontuan izanik bereiziz.
3. Jakin nahi dugunarekin erlazioa duten galdera batzuekin galdekizun bat lantzea.

a.- Normalean, zenbat denbora libre daukat astero?:

- \* Eskolako jolasgaraia:
- \* Irakastegun bakoitza:
- \* Larunbat eta igandeak:
- \* Jaiegunak eta oporrak:

b.- Zertan erabiltzen dut denbora hori?

	denbora
Lagunekin jolasten naiz	
Kirola egiten dut	
Musika, dantza... interpretatzen dut	
Musika entzuten dut, telebista ikusten dut	
Bideojokoekin jolasten naiz	
Paseoak, bisitaldiak, erosketak...	
Pelikulak, kirolak... ikusten ditut	
Komikiak, liburuak, egunkariak, aldizkariak eta abar irakurtzen ditut	
Lagunekin hizketan aritzen naiz	
Beste ekintza batzuek	

Jarraitu beharreko prozedura honako hau izan daiteke:

- . Gaiari buruzko ideia-galderen zurrunbiloa.
- . Ikerketarako erabilgarrienak diren galderen aukeraketa.
- . Galderen ordenazioa.
- . Galdera bakoitzari egokitutako erantzun-motak: irekiak, itxiak...
- . Inkestaren lanketa osoa.
- . Inkestaren helburu izango den jendearen zehaztapena: adina, sexua, lanbidea, edozein pertsona...
- . Inkesta egiteko modua finkatzea: lekuak, zonak, ibilbideak..., orduak; indibiduala, bikoteka, taldeka...
- . Inkesta egiteko oinarrizko tekniketarako prestakuntza: Kortesia eta hezibide ona arau gisa: agurtzea, aurkezten jakitea, adeitasunez galdetzea, erantzunak anotarzea (hala dagokionean), tematiegia ez izatea, erantzuteko edo ez erantzuteko borondatea errespetatzea, eskerrak ematea, eta abar.

## **B.- APLIKAZIO-FASEA**

Galdekizuna prest eduki ondoren, inkestatzaile-taldeak inkesta egiten du, erantzunak hitzez hitz anotatuz, ahal bada behintzat.

## **C.- AZKEN FASEA**

Beharrezkoa da fase honek ondorengo hau barne hartzea:

- . Inkestatzaileek elkarren artean esperientzia honi buruz beren iritziak adieraztea.
- . Bildu diren erantzunak, datuak eta informazioak analizatzea.
- . Ondorioak ateratzea.
- . Esperientzia guztiok batera analizatzea (erabilgarritasuna, fidagarritasuna, aurkitutako arazoak...).

### **1. Datuak laburtzea**

Datuen tabulazio bat egitea laburpen-taula baten bitartez, bertan inkesta egin zaien pertsonen erantzunak bilduz. Datuak grafikoki formatu desberdinetan aurkez daitezke (grafiko barradunak, sektoredunak, puntudunak, eta abar.).

### **2. Datuen interpretazioa**

Faserik zailena da, baina behar-beharrezkoa da ondorio baliozkoak, fidagarriak eta arrazoituak atera ahal izateko. Erantzunak arrazoitu eta ondorioak atera behar dira... esate baterako:

- neskek mutilek baino denbora gehiago dedikatzen dute...
- hala mutilek nola neskek... denbora deikatzen dute...
- mutilek asteburuetan aisialdirako denbora gehigo dute eta neskek...

### **3. Txosten bat egitea**


Inkestaren bitartez lortutako emaitzei buruzko txosten bat landuko da, eta bertan prozesuaren eta lortutako emaitzen (behar bezala tabulatuta eta grafikoki errepresentatuta) ebaluazio bat barne hartuko da.

## 5.- NORBERAREN NORTASUNA

Jarraian hainbat arazo eta galdera planteatuko ditugu dagozkien miaketa- eta ikaskuntza-ekintzekin.

GALDERAK
<ul style="list-style-type: none"><li>- Nor naiz?</li><li>- Nolakoak izan ziren ni jaio aurreko zirkunstantziak?</li><li>- Nolakoa izan zen nire jaiotza?</li><li>- Nola bizi zen nire familia garai hartan?</li><li>- Jaioterria eta jaioteguna.</li><li>- Zein dira nire ezaugarri pertsonalak? Altuera, pisua, begien kolorea, azala, izaeraren ezaugarriak...</li><li>- Nire ikaskideekiko antzekotasun eta desberdintasunak.</li></ul>

NIRE JAIOTZAREN KONTAKIZUNA...



Ni 198..ko .....ren .....an jaio nintzen. Non:.....

## EKINTZAK

- Informazioa ondoko iturrietatik jasoko da:

\* Ahozko iturriak: gurasoak, senideren bat...

\* Idatzizko iturriak: famili liburua, jaiotza-agiria, klaseko ikasleen erregistro-liburua...

- Nire fitxa pertsonala eta NAN egitea.

- IZENA

- DEITURAK

- GURASOEN IZENA

- JAIOTERRIA ETA JAIOTEGUNA

- HELBIDEA

- Neure eta lau ikaskideren ezaugarri pertsonalak behatzea eta hauei buruzko datuak behatu eta biltzen ditut.

- Norberaren eta ikaskideen ezaugarri pertsonalak (altuera, pisua, azalaren, begien eta ilearen kolorea, izaeraren ezaugarriak...) bilduko dituen koadro sinoptikoa egitea.

- Klaseko ikaskideak adinaren arabera ordenatzea (zaharretik gazteenera eta gazteenetik zaharreneira). Zaharrenaren eta gazteenaren arteko diferentzia urte, hilabete eta egunetan.

\* Altueraren arabera ordenatzea.


\* Pisuaren arabera ordenatzea.

**"KONTUAN IZAN BEHAR DUGU BETI DENOK DESBERDINAK GARELA, EZ HOBEAK, EZ TXARRAGOAK. ETA ELKAR ERRESPETATZEN DUGU"**

Gai hauei buruz gurasoei elkarrizketa bat egin eta magnetofono batean graba daiteke. Hala badagokio, irudiz horni daiteke garai hartako bideo-zinta baten edo argazkien bidez.



- Ni jaio nintzen unean zeuden zirkunstanziak kontatzea, horretarako informazioa bilatzen saiatzen naiz (ahozko eta idatzizko iturrietara joz)
  - Nolakoa zen jaio nintzeneko eguna?
  - Zein klinika edo ospitaletan jaio nintzen?
  - Nork eraman zuen nire ama?
  - Familiak lagundu al zuen?
  - Nor zen ginekologoa?
  - Erditzea luzea izan al zen?
  - Nolakoa nintzen jaio nintzenean?
  - Nolako opariak jaso zituen nire amak?
  - Nolakoak izan ziren nire bizitzako lehen egunak? Ongi jaten al nuen? Nigar asko egiten al nuen? Nola egiten nuen lo?
- \* Nire guraso, jaiotza eta bizitzako lehen egunei buruzko datuak eta informazio fotografikoa (testuarekin osatua) bilduko dituen panel bat eraikitzea.
- \* Nire jaioteguna idatziz kontatzea.



## 5.1.- NIRE LEHEN URTEAK

### GALDERAK

- Nolakoak izan ziren nire bizitzako lehen hilabeteak?
- Noiz hasi nintzen ibiltzen?
- Noiz ikasi nuen hitz egiten?
- Nork zaintzen ninduen?
- Nork ematen zidan jaten?
- Nola jolasten nintzen?
- Norekin jolasten nintzen?
- Haurtzaindegira joaten al nintzen?
- Noiz hasi nintzen eskolan?

### EKINTZAK

- \* Datuak ondoko iturrietatik jasotzea:
  - Ahozkoak: guraso eta senideei egindako elkarrizketak
  - Idatzizkoak: txartel medikoa, gonbidapenak, pasadizo-bilduma...
  - Ikus-entzunezko eta grafikoak: argazkiak, magnetofono- eta bideo-grabazioak
- \* Lehen hiru urteetako bizitzari buruzko dokumentuak bilduko dituen dossierra egitea
- \* Lehen hiru urteen friso kronologikoa egitea



## NIRE LEHEN URTEEN HISTORIA

## 5.2.- NIRE LEHEN URTEETATIK GAUR EGUN ARTE

<b>GALDERAK</b>
- Zein izan dira nire bizitzako gertaerarik garrantzitsuenak?
- Eta nire oroitzapenik onenak?
- Eta txarrenak?

<b>EKINTZAK</b>
<p>* Norberaren friso kronologikoa egitea. Jaio nintzeneko urtetik gaur egun arte nire bizitzako urte bakoitzeko gertaerarik garrantzitsuenak adieraziko ditut denboraren lerroan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jaioteguna eta jaioterria.</li> <li>- Anai-arreben jaiotza.</li> <li>- Eskolan hastea.</li> <li>- Bidaiak.</li> <li>- Etxe-, eskola- eta auzo-aldaketak...</li> <li>- Ikastetxe edo Institutuko kurtso- edo maila-aldaketak.</li> <li>- Oporretako lekuak.</li> <li>- Istripu txikiak: orkatilaren edo eskumuturraren dislokazioa, oina edo besoa puskatzea, amigdalen edo apendizaren ebakuntza, eta abar.</li> <li>- Errito edo zeremonia erlijiosoak, hala badagokio: bataioa, lehen jaunartzea...</li> </ul> <p>* Norberaren bizitzako gertaerarik garrantzitsuenetariko bat idatziz kontatzea.</p>

Une bakoitzeko argazki bat bilatzen dut, dagokion laukian itsasten dut eta argazkiaren oinean unearen azalpen txiki bat idazten dut

JAIOTZA	IKASTETXEAN SARTZEA	LEHEN HEZKUNTZA	BIGARREN HEZKUNTZA

## 6.- JOLASAK, JOSTAILUAK ETA KIROLAK

### GALDERAK

- Zein haur-jolas gogoratzen ditut?
- Jolasak adinaren arabera.
- Nolako jostailuak izan ditut?
- Zein da gogoratzen dudan jostailurik gogokoena?
- Zein kiroletan aritu izan naiz?

### EKINTZAK

- \* Ikaskideekin haur-jolasak aipatu eta gogora ekartzea.
- \* Gurasoei haurtzaroko jolas eta jostailuei buruzko elkarrizketak egitea.
- \* Adinak jolas eta jostailuekin lotuko dituen denborazko eskema bat egitea.
- \* Jolas, kirol eta jostailuei lotutako argazki eta filmazioak jasotzea.
- \* Taldeetan gai hauei buruz hitz egitea.

1.- Jolasak eta jostailuak ez dira beti berdinak izan, denboraren, materialetan eta teknologian egon den aurrerapenaren eta abarren ondorioz aldatzen joan dira.

Bete itzazu ondorengo laukiak gutxienez ere lau jolasekin, nola aldatu diren ikusteko

#### JOSTAILU TRADIZIONALAK

IZENA	NOLA JOLASTEN DA
*	
*	
*	
*	

#### JOSTAILU BERRIAK

IZENA	NOLA JOLASTEN DA
*	
*	
*	
*	

#### JOSTAILU ZAHARRAK

IZENA	NOLA JOLASTEN DA
*	
*	
*	
*	

2.- Parkean, ikastetxeko patioan, oporretan nagoenean, pelikuletan eta bar, ikus dezaket neska-mutilak ez direla beti jolas berdinetara jolasten. Lauki bat landuko dut, eta bertan neska-mutilen jolasak sailkatuko ditut beren adina eta batera egiten dituzten jolasak kontuan hartuz.

ADINA	JOLASAREN IZENA
1-3	
3-5	
5-7	
7-9	
9-11	
11-13	
13-15	

## 6.1.- NIRE GURASO ETA AITONA-AMONEN JOLASAK

### GALDERAK

- Zein ziren nire gurasoen haurtzaroko jolas nagusiak?
- Eta nire aitona-amonenak?
- Nolako jostailuak zituzten?
- Kirolik egiten al zuten?
- Jolas, jostailu eta kirolak egungoak bezalakoak al ziren?

### EKINTZAK

- \* Guraso eta aitona-amonei elkarrizketa bat egiteko galdera-sorta prestatzea, taldean.
- \* Elkarrizketan lortutako datuak jaso, ordenatu eta sailkatzea.
- \* Gure aitona-amonen garaitik gurera jolasek izan duten bilakaera behatzea.
- \* Hiru belaunaldien arteko konparazioa egitea eta antzekotasun eta desberdintasunak ateratzea.
- \* Ondorioak ateratzea.
- \* Gai hauei buruzko txosten bat lantzea (bakarka edo taldean).

**Ba al zenekien...**

“Familiaren historialariek enbor-familia aipatzen dute **familia zabalaren**<sup>2</sup> sinonimo gisa. Famili mota hau mendeetan zehar egon da Europa menditsuan eta artzaintzari loturikoan, kantauriko mendietan eta Pirinioetan zehar Austriako Alpeetaraino. Eredu honi kontrajarriz familia murriztua (edo nuklearra) dago, arro sedimentario handien Europan nagusi izan dena. Goiz Erdi Aroan zehar, oro har, Europako Mendebaldean familia nuklerra eta hiriak bete eta landa hustutzen duten gizarte industrialen eboluzioa nagusitzen joan da, familia batez ere kontsumi-unitate bihurtuz, leku guztietan familia murriztuaren eredu ezarriz (MANTEROLA, La familia tradicional en Bizkaia, pág. 44).

1. Koka itzazu Europako mapa batean autoreak aipatzen dituen zonak.
2. Zein eratan izan du eragina industrializazioak eta landatik hirirako emigrazioak familia zabalaren beherakadan? Saia zaitetz gutxienez ere hori justifikatzen duten hiru arrazoi adierazten.
3. Zure ustez etxebizitzaren dimentsioek eta hauek eraikitze moduak eraginik izan al du familia murriztuaren nagusitze horretan? Zure erantzuna arrazoitu.



Askotan komunikabideetan "guraso bakarreko familiak" eta "familia patriarkalak" eta antzeko esamoldeak agertzen dira. Saia zaitetz beren esanahiari buruzko informazioa bilatzen.

Familia patriarkalak

Guraso bakarreko familiak

---

<sup>2</sup> (Aita, ama, aitonak, amonak, osabak, izebak, semeak, alabak, lehengusuak, lehengusinak, ilobak, bilobak, eta abar.).



Zure eskaileran bizi diren familiak kontuan hartuz, bete ezazu taula gurutze bat (aitaren edo amaren kasuan) edo familia bakoitzean bizi diren gradu bakoitzeko senitarteko-kopurua ipiniz:

pisua eta atea	aita	ama	seme-alabak	aitona-amonak	osaba-izebak	lehengusu-lehengusinak	anai-arrebak	beste batzuek

Nola baloratzen duzu belaunaldi desberdinak etxe berean bizitzea? Zure erantzuna arrazoitu:

### Ba al zenekien...

“Gaur egun familiaren kontzeptua bere errealitaterik mugatuenari aplikatzeko joera dago: aita-ama eta seme-alabak. Baina familiak beste ahaide batzuekin duen loturaren indarra begibistakoa da. Indar hau ez da soilik ezkontza, bataio, hileta edo antzekoetara bertaratzearekin adierazten. Ezkontzetara eta hauen bazkarietara bi ezkontideen etxeetan bizi diren familietako kideak bertaratzen dira, eta gainera osaba-izebak ere gonbidatzen dira. Bataio eta lehenengo jaunartzeen ondorioz egiten diren senitartekoen banketeak duela gutxiko praktikak dira.

Ohiturak ezartzen dituen ospakizun huez gain, familiaren zirkulu zabalagoaren kideek (osaba-izebak eta lehengusu-lehengusinak) lanpostu bat aurkitzeko, lanbide bat ikasteko, aldi baterako ostaturia eskaintzeko edo arazoren bat konpontzeko eskaintzen dituzten aukerak ere azpimarragarriak dira” (MANTEROLA, La familia tradicional en Bizkaia pág. 14, 17 y 18).

1.- Osa ezazu familiaren ospakiunei buruzko taula hau eta seinala itzazu gurutze batekin parte hartzen duten pertsonak, "beste batzuek" atala izan ezik, bertan zein senitarteko den edo soilik "ahaidea" adierazi beharko baituzu. Beste ospakizun batzuek ere gainera ditzakezu.

Ospakizuna	aita/ama	anai-arrebak	osaba-izebak	aitaren aldeko aitona-amonak	amaren aldeko aitona-amonak	beste batzuek
Gabonak						
Ihauteriak						
Ezkontza						
Hileta						
Urtebetetzea						

2.- Zure familian lan-motaren bat egiteko edo familiaren negozioa edukitzeko tradizioirik ba al dago? Egizu azalpen labur bat.

## 7.- FAMILIAREN ZUHAITZ GENEALOGIKOA


### GALDERAK

- Noiz eta non jaio zen nire aita? Eta nire ama?
- Eta nire aitona-amonak? Eta nire birraitona-amonak? Zein izen dute edo zuten?
- Nolakoa zen nire aurrekoen bizitza?
- Zein lanbide zituzten?
- Lanbidea edo bizimodua aldatu al zuten?
- Non eta nola bizi ziren?
- ¿...?


### EKINTZAK

- \* Elkarrizketak egiteko galdera-sortak prestatzea, taldean.
- \* Hala badagokio, birraitona-amonei, aitona-amonei eta gurasoei elkarrizketak egitea.
- \* Datu eta informazioak jaso, datatu eta ordenatzea.
- \* Belaunaldi bakoitzaren mugak bereiztea.
- \* Norberaren friso kronologikoa egitea.
- \* Familiaren friso kronologikoa egitea.
- \* Azken lau belaunaldien zuhaitz genealogikoa egitea.


## ZUHAITZ GENEALOGIKOA




## BELAUNALDIEN FRISO KRONOLOGIKOA



## AZKEN 100 URTEEN FRISO KRONOLOGIKOA



### FRISO KRONOLOGIKOA



## 8.- LANBIDEEN BILAKAERA NIRE FAMILIAREN HISTORIAN

### GALDERAK

- Zein lanbide izan dituzte nire aurrekoek?
- Belaunaldi desberdinen arabera aldatu egin al dira?
- Nolako bilakaera izan dute lanbide hauek mende honetan?
- Nolako bilakaera izan dute lan-tresnek?

### EKINTZAK

- \* Taldean galdera-sorta bat prestatzea.
  - \* Familiako kide desberdinei elkarrizketa egitea.
  - \* Lanbideei buruzko idatziak, lan-kontratuak, nominak, oharrak dituzten enpresa-liburuak, gai hauei buruzko artikulak dituzten garai desberdinetako egunkariak jasotzea (hemerroteketan aurki daitezke).
  - \* Lanbide bakoitza garai bakoitzean idatziz eta ahoz deskribatzea.
  - \* Gaur egungo lanbidearekin konparatzea.
  - \* Talde-lana: ondorioak ateratzea.
  - \* “Nire familiaren lanbideak XX. mendean” gaiari buruzko dossier eta txosten bat egitea.
- \* Atal honetan, eta irakasleak aukeratuta, lanbideez bestelako garapen-ildo bat landu ahal izango da, hala nola lokomozio-bideak, etxebizitza, arropa, ohiturak...

**Ba al zenekien...**

“Sarrailgina gizartean ongi ikusia izan den profesionala da, eta bere jardueran serieko fabrikazioak eta enpresa handien presentziak eragin handia izan du... Fabrikazioak eskulangintza-lanbide bati erantzuten zion neurrian, lanbide-garrantzi handia izan zuen, baina zirkunstantzia hau erabat desagertu egin da serieko produkzioak (fabrikazioak) piezen fabrikazio-fase bakoitza eta beren muntaia, tratamendua eta kontrola konbentzionalagoa eta teknikoagoa bihurtu izanaren ondorioz. (VVAA oficios tradicionales pág. 38)

1.- Zein izan dira lanbide hau desagertzearen arrazoiak?

Zure ustez horiek ere izan al dira beste lanbide batzuek desagertzearen arrazoiak? Zure erantzuna arrazoitu

2.- Sarrailginarena bezalaxe, lan edo lanbide batzuek desagertu egin dira. Osa ezazu ondorengo taula, gutxienez ere lau lanbiderekin

	LAN ZAHARRAK
LANAREN IZENA	ZERTAN DATZA?
hargina kanpaigilea larru-ontzailea sarrailgina bidezaina pregonari	

3.- Badaude beste batzuek, aitzitik, dirautenak. Saia zaituz adibide batzuek jartzen

	DIRAUTEN LANAK
LANAREN IZENA	ZERTAN DATZA?





Zein lanbide aukeratuko duzu pertsona heldua zarenerako? Azal ezazu lan hori zertan datzan, non egiten den, berau burutzeko zein ezagutza edo ikasketa beharrezkoak diren...

	ORAINGO LAN BERRIAK
LANAREN IZENA	ZERTAN DATZA?

Idatzi dituzuen lan edo lanbide batzuek gaur egun gizonek nahiz emakumeek egiten dituzte, baina hau ez da beti horrela izan

#### Ba al zenekien...

“XIX. mendearen bigarren erdian, emakumeari buruzko ideal burgesak gizarte osora zabaldu ziren. Sozialismoaren teorikoak ere emakumeek soldatapeko lan bat egitearen aurka agertzen ziren. Mendearen aldaketarekin aldaketa hauek nabariagoak izan ziren... Mundu-gerrek, emakume ugariaren lan-munduratzeari ekarri zutenak, aurrerapen teknikoek, emakumea etxeko lan astun batzuek askatu zituztenak, eta erreibindikazio-ekintzetan emakumeen parte-hartzeak pentsamoldeetan eraldaketa erabakiorra markatu zuten”. (VEGA, E. de: La mujer en la historia págs. 66 y 68).

Testua arretaz irakurri ondoren, emakumea lan-munduratzeari ahalbidetu zuten arrazoiak adieraz itzazu. Zure erantzuna arrazoituz.

Zure ustez lanaren munduan gizonek eta emakumeek trataera berdina jasotzen al dute ordutegiari, soldatari, koalifikazioari eta abarri dagokienez? Bila ezazu goi honi loturiko informazioa eta saia zaitez txosten labur bat egiten.

**Oharra:** Ikasle bakoitzak mural batean bere familiak egindako lana edo bestela tauletan adierazten den lanetako bat errepresenta dezake, beti ere interesgarria edo bitxia baldin bada, eta ikerketa-lan gisa baliagarria izango da.

Era berean proposa daiteke dagoeneko desagertuta dagoen edo eboluzionatu egin den edo erabat aldatu den lanbide bati buruzko lan monografiko bat egitea, banaka nahiz taldeka.

## NORK EGITEN DU ZER ETXEAN?<sup>3</sup>

Jar ezazu gurutze bat etxean ekintza edo lan hauek egiten dituen pertsona bakoitzaren laukitxoan

kozinatu					
janaria erosi					
altzariak erosi					
arropa garbitu					
arropa eseki					
plantxatu					
josi					
ohea egin					
hautsa kendu					
mahaia jarri					
erratza pasa					
fregatu					
argia konpondu					
bankuetako kontuak eraman					
kotxeaz arduratu					
eskolako bileretara joan					
haurrak zaindu					
TBko albistegiak ikusi					
egunkariak irakurri					
pelikulak ikusi					
gaixo dauden pertsonak zaindu					

1. Egin ezazu eskema bat, bartan familiako kide bakoitzak garatzen dituen zereginen proportzioa ikus dadin.
2. Egin ezazu beste eskema bat, oraingoan kolektiboa izango dena, bertan ekintza hauetariko bakoitza egiten duten gizonezko, emakumezko, neska edo mutil kopurua ikus dadin.
3. Zuk zeregin hauen zerrenda nola antolatuko zenukeen idatzi eta zure lan-taldean azal ezazu, zure arrazoiak adieraziz.


<sup>3</sup> (VV.AA.: Corresponsabilidad, pág. 74).

**Baina hau ez da beti horrela izan, duela mende bat egoera honako hau zen.**

“Etxeko lanak ez zuen gauza bera errepresentatzen gizarte-klase guztietan. Fabrikako soldatapeko lana eta etxeko lanak eta amaren zereginak bete behar zituen emakume langilearentzat, lan-jardun bikoitza egitea oso neketsua zen. Klase ertainetako emakumeek etxeko lanak zerbitzariarengan eskuordetzen zituzten, eta haurren zaintza umezainengan. Beren zeregina hori guztia koordinatzea zen. Emakume burgesak etxeko lan guztiak eskuordetzen zituen: bere zeregina ezer egiten ez zuen emakume gisa azaltzea zen, era honetan bere senarraren posizio ekonomikoa erakusten baitzuen; beraz, funtsean gizarte-jardueretara dedikatzen zen. Azken bi kasuetan emakumeek beren senarrenganako zuten menpekotasuna erabatekoa zen”. (VV.AA.: (1992) La mujer en la historia pág. 67)

- 1.- Testuak erakusten duen egoera, gaur egun ematen al da? Zer egiten dute gizarte-klase horietako emakumeek gaur egun?.
- 2.- Zure ustez gizonaren eta emakumearen zereginak eboluziorik izan al du gaur egungo familian?. Erantzuna arrazoitu.

## PROIEKTU DIDAKTIKOA: “ POPULAZIOA, EKONOMIA ETA ENPLEGUA NIRE HERRIAN”



### **Populazioa, ekonomia eta enplegua nire herrian**

Derrigorrezko Bigarren hezkuntzako lehen zikloa

**José María Millán Estébanez  
José Miguel Cristóbal Fraile**

## 1.- SARRERA

Proiektu didaktiko honen hezkuntza-garapenaren funtsezko ezaugarrien artean talde-lana, partaidetza, ikerketa-dinamika eta herriko biztanle, bizimodu eta problematikari buruzko alderdi soziologikoak ezagutzeko interesa aipa daitezke.

Proiektu didaktiko honek herriko populazio, ekonomia eta enpleguari lotutako errealitate eta problematika soziala landu nahi du. Horretarako hazkunde ekonomikoaren, enplegu-sorkuntzaren, industri birmoldaketaren, langabeziaren fenomenoaren eta migrazio-mugimenduen artean dagoen lotura estua egiaztatuko du besteak beste.

Ildo honetan, herriaren azterketa- eta ikerketa-lana testuinguruan kokatzeko baliagarriak izango diren gai hauei buruzko hainbat datu eta informazio emango ditugu (Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez).

Landu beharreko edukien artean ondokoak aipa daitezke: zenbait funtsezko kontzeptu, hala nola “populazio absolutua”, “populazio-dentsitatea”, “migrazio-mugimenduak”...; miaketa-prozedurak, grafiko eta koadro sinoptikoen interpretazioa, eztabaidak...; eta, besteak beste, lankidetzaren, sentsibilizazio- eta elkartasun-jarrerak. Bereziki, langabeziaren, inmigrazioaren eta marjinazioaren arazo sozialek protagonismo handia izango dute.

Aukeratutako baliabide metodologikoen helburua ikasleek gai honi buruzko ikaskuntza esanguratsuak eraikitzea da, betiere euren eskuhartzeko esparruaren barruan. Baliabide hauek zerikusi zuzena dute inkesta bidezko landa-lanarekin, bakarka eta taldeka egiteko lanekin eta irakaskuntza-prozesuari funtzionaltasuna, praktikotasuna eta erabilgarritasuna ematearekin. Eta hori guztia alde aurretik ikasleentzat interes handikoak diren eduki motibagarri eta garrantzitsu batzuk egokiro aukeratu ondoren.

Unitate didaktiko honetako hezkuntza-prozesuari hasiera eman aurretik komenigarria da ikasleei edukiak eta hezkuntza-asmoak aurkeztea eta hauekin jarraitu beharreko lanerako plana negoziatzea. Horrela, protagonismoa ikasleena izango da eta, ondorioz, hauek erabat inplikatu dira garatu beharreko zeregin eta ekintzetan.

## 2.- ALDEZ AURREKO EZAGUTZEN MIAKETA

Ikaskuntza esanguratsuen funtsa ikas-eduki berriaren eta ezaguna denaren artean benetako loturak (ez-arbitrarioak) ezartzeko posibilitatea denez gero, alde aurreko ezagutzak oso garrantzi handikoak dira ikaskuntza esanguratsuen teorian.

Baieztape biribil honetatik atera daitekeen ondorioa zera da, hots, hezitzailearen lehen zeregina ikasleek “populazioa, ekonomia eta enplegua herrian” gaiari buruz alde aurretik dituzten ezagutzak zein diren bilatzea dela.

Ahal den neurrian ikasleak bere alde aurreko ezagutzak adieraz ditzan bilatuko da, aurrerago, ezagutza-gatazka eragitearen bidez hezitzaileak egingo duen bitartekotza-lanari esker, bere alde aurreko ezagutza horien mugak eta hutsaltasuna antzeman,

sentitu, esperimentatu eta ikus ditzan eta, azkenik, bere ezagutza-eskema berrietan barne hartuko dituen errealitatearen alderdi berriak aurki ditzan.

Aldez aurreko ezagutzak aurkitzeko erabil daitezkeen teknikak ondokoak dira:

- Idea-sorta. Ikasleei askatasun osoz eta berez herriarekin zerikusia duten ideia, hitz, gertaera, pasadizo eta kontzeptuak adierazteko aukera ematen zaie.


Irakasleek gaiari buruz dakiten guztia jaso, berriz antolatu eta kategorietan egituratzen dute, kategorია hauen arteko lotura bilatuz.

- Sormenezko galderen planteamendua. Ikasleek gaiari buruzko hainbat galdera egiten dizkiote elkarri eta, ahal duten neurrian, erantzuten saiatzen dira: zer da? zergatik? nola? non? noiz?...

- Elkarrizketa pertsonalak. Elkarrizketa hauetan gai bati buruz hitz egiten da giro atsegin eta adeitsu batean. Ikasleak hitz egin eta galderak erantzuten ditu, erantzunak arrazoitzen eta justifikatzen saiatuz.

- Taldeko eztabaida. Klase osoan edo talde txikietan egin daiteke. Azken kasu honetan, gai bati buruzko ondorioak klase osoan azaltzen dituzte.

- Kontzeptu-mapak. Kontzeptu garrantzitsu batetik abiatuta kontzeptu desberdinak lotzen dira ahalik eta adibiderik zehatzenera iritsi arte. Horri esker, irakasleak ikasleentzako kontzeptu esanguratsuak, hauei esleitzen dizkieten gaitasunak –beti zuzenak ez direnak– eta ikasleen jakintzaren eta ikasleen gaitasun-mailari egokitutako jakintza zientifikoaren artean dagoen distantzia ezagutu ahal izango ditu.



### 3.- HELBURU DIDAKTIKOAK

Tailerra bat izanik, eta herria gauza globaltzat hartuta, helburuak ikasleen oinarrizko gaitasunak garatzeari begira finkatu dira eta gaitasun hauek, hortaz, ez dira zuzenean ebaluagarriak izango. Aitzitik, unitatearen barruan egin beharreko ekintza desberdinetan inplizitu edo esplizituki agertuko dira.

Aurrekoa kontuan hartuta, hona hemen planteatzen diren helburu didaktikoak:

1. Herriko ekonomia, enplegu eta migrazio-mugimenduen arteko erlazioa ulertzea.
2. Herriko errealitate soziala analizatzea ikerketa soziologikorako metodo zientifikoaren oinarrizko faseak aplikatuz.
3. Herriko gizarte-komunitate desberdinen aniztasuna identifikatu eta baloratzea.
4. Azken urteotan herrian gertatu diren aldaketa ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak ezagutzea.
5. Herriari eta inguruneari buruzko mapa desberdinak irakurri eta interpretatzea.
6. Herriko arazo nagusien aurrean sentikor izatea.
7. Komunikabide desberdinetan herriko eta Euskal Herri osoko populazioari buruz agertutako informazioa aukeratzea.
8. Herriko kale nagusien izenen esanahia ezagutzea.
9. Herrian eta Autonomia Erkidegoan gaur egun gertatzen ari diren migrazio-mugimenduak ezagutu eta analizatzea eta hauen aurrean jarrera bat hartzea.
10. Euskal Herriko jaiotza-tasa eta heriotza-tasaren zenbait ondorio identifikatzea.

## 4.- EDUKIAK

KONTZEPTUZKOAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>. Herriko esparru fisiko eta naturala. Eskualdean eta Lurralde Historikoan duen kokapena.</li> <li>. Herriko populazioaren egungo egoera:             <ul style="list-style-type: none"> <li>. Biztanle-kopurua; populazio-dentsitatea.</li> <li>. Ondoko alderdiei buruzko datu demografikoak joan den urteko abenduaren 31n: jaiotza-tasa, heriotza-tasa, emigrazioa eta inmigrazioa.</li> </ul> </li> <li>. Jaiotza-tasa. Heriotza-tasa. Hazkunde begetatiboa.</li> <li>. Nire herrian 1979tik egun arte izan diren migrazio-mugimenduak. Ekonomiaren eta lan-eskaintzaren eragina.</li> <li>. Herriko datu demografikoen eta Euskal Herri osokoen arteko konparazioa.</li> <li>. Migrazio-mugimenduak Euskal Herrian.</li> <li>. Etorkinen problematika herrian eta Euskal Herrian.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Azalera, populazio, jaiotza-tasa, heriotza-tasa, emigrazio eta inmigrazioari buruzko mapa eta grafikoak irakurri eta interpretatzea.</li> <li>. Herriko bilakaera, ekonomia eta enpleguari buruzko testu, dokumentu eta artikulua irakurtzea. Talde txikietan eztabaidatzea eta nire inguruneko lan-munduarekin zerikusia duten alderdi desberdinei buruzko inkestak taldean planifikatu, burutu eta tabulatu ondoren ondorioak ateratzea.</li> <li>. Populazioari eta produkzio-sektore desberdinei buruzko koadro estatistikoak analizatzea.</li> <li>. Euskal Herrian migrazio-mugimenduen eraginik handiena izan duten landa- eta hiri-zonak adieraztea.</li> <li>. Herriko populazioari buruzko kontzeptu-mapa bat egitea.</li> <li>. Herriari buruzko ikerketa soziologiko txikiak egitea.</li> <li>. Komunikabideek etorkinen problematikari buruz emandako informazioa analizatu eta kritikoki ebaluatzea.</li> <li>. Herriko edota Euskal Autonomia Erkidegoko populazio, ekonomia eta enpleguari buruzko kontzeptu-mapak egitea.</li> <li>. Euskal Herriko etorkinen problematikari buruzko txosten bat aurkeztea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>. Herriko bizikidetasun demokratikoan arduraz parte hartzea iritzi eta bizimodu desberdinekiko errespetu- eta tolerantzia-jarrerak garatuz.</li> <li>. Herriko eta Euskal Herriko populazio, ekonomia eta enpleguari buruzko datu eta informazioak erabiltzerakoan zorrotz eta zehatz-mehatz jokatzeko eta objektibotasuna bilatzea.</li> <li>. Gai hauei buruzko grafiko eta datu estatistikoak baloratzea (herriari, Lurralde Historikoari edo Euskal Herriari).</li> <li>. Euskal populazioaren zati batek jasaten duen langabeziaren edo marjinazioaren problematikaren aurrean sentikortasuna eta elkartasuna azaltzea.</li> <li>. Euskal Herriko etorkinen eta emigratzera behartuta dauden euskaldunen problematikaz jabetzea.</li> <li>. Etorkin-taldeen ekarritako forma kulturalak baloratu eta errespetatzea, pertsona eta gizartea aberasteko modu gisa.</li> <li>. Marjinazioari eta xenofobiari loturiko jarrerak baztertzea.</li> <li>. Bereziki marjinatutako taldeetan enplegu-arazoekiko enpatia (emakumeak, gazteak, etorkinak, ezgaituak, ijituak, eta abar).</li> </ul>



## 5.- IKERKETAREN FASEAK

Herriko populazio, ekonomia eta enpleguari buruzko ikerketa eta azterketa 4-6 ikasleko lankidetzat taldeetan egingo da.

Zenbaitetan, talde bakoitzak ikertu beharreko errealitate sozialaren gai eta alderdiak desberdinak izango dira. Hori dela-eta, ikerketaren barruan komunikazio-trukerako eta “bateratze-lanerako” esparruak aurreikusiko dira.

Ikerketa-prozesuaren faseak ondokoak izango dira:

<p><b>PROBLEMAREN PLANTEAMENDUA</b></p>	<p>Fase honetan, ikertu beharreko problematika aukeratuko da galderak planteatuz eta azterketaren xedea mugatuz. Ildo honetan, hainbat galdera sortuko dira, hala nola:</p> <p style="text-align: center;"><b>POPULAZIOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zein da nire herriko populazioaren egitura?</li> <li>- Populazio absolutua</li> <li>- Populazio-dentsitatea</li> <li>- Migrazio-mugimenduak</li> <li>- Lurralde Historikoko eta Euskal Autonomia Erkidegoko datuekin konparatzea</li> <li>- Gizarte-talde marjinatuak</li> </ul> <p style="text-align: center;"><b>EKONOMIA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nolakoak dira herriko sektore ekonomikoak?</li> <li>- Sektore ekonomiko nagusia</li> <li>- Azken urteotako bilakaera ekonomikoa (azken hamarkadako adibidez)</li> <li>- Lanbiderik ohikoenak</li> <li>- Ekonomiaren eta migrazio-mugimenduen arteko erlazioa</li> <li>- Lurralde Historikoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin konparatzea</li> <li>- Beste zenbait</li> </ul> <p style="text-align: center;"><b>ENPLEGUA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herrian ba al da langabezi arazorik?</li> <li>- Lan egiten duen populazioa</li> <li>- Langabezia dagoen populazioa. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko konparazioa</li> <li>- Etorrizunerako aukerak</li> <li>- Lurralde Historikoarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoarekin konparatzea</li> <li>- Ekonomia eta migrazio-mugimenduekiko erlazioa</li> <li>- Beste zenbait</li> </ul>
<p><b>HIPOTESI EDO ERANTZUN INTUITIBOAK</b></p>	<p>Planteatutako galdera eta arazoen aurrean ikasleek euren iritzia eman eta lehen erantzunekin errealitatera hurbiltzen saiatuko dira. Oso une egokia da alde zuzeneko ezagutzak eta gai hauekiko duten sentikortasuna antzemateko. Aurrerago ikerketarako beharrezkoak diren bideak eta erabili beharreko baliabide eta tresnak zehaztuko dira.</p>
<p><b>MIAKETA</b></p>	<p>Lan-taldeek, jarraitu beharreko ikerketa-bideak finkatuko dituzte. Erabili beharreko tresnak eta iturriak askotarikoak izango dira: bibliografia eta dokumentazioa, elkarriketak, inkestak eta grafikoaren eta datu estatistikoaren analisia.</p>

	<p><b>POPULAZIOARI BURUZKO DATU-BILKETA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Herriko Udala.</li> <li>. Euskal Estatistika-Erakundeak (EUSTAT) landutako Estatistika-Urtekaria.</li> <li>. Komunikabideek herriko populazioari buruz emandako egungo berriak.</li> <li>. Kultura-Gelako edo Liburutegiko Hemeroteka.</li> <li>. Hainbat gizarte-taldetako ordezkarietara euren berriazko problematikari buruzko elkarrizketak egitea.</li> </ul> <p><b>EKONOMIA ETA ENPLEGUARI BURUZKO DATU-BILKETA:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>. Hemerrotekan bertako egunkarietako eta aldizkari ekonomiko espezializatuetako ekonomi sekzioak kontsultatzea.</li> <li>. Herriko enpresa nagusietariko batzuetako –landetxea, fabrika, bankua, enpresa eraikitzailea, ostalaritza- eta merkataritza-lokalak...– zuzendari, gerente, langile-buru eta abarri ondoko alderdiei buruzko elkarrizketak egitea: produkzio-, eraikuntza- edo zerbitzu-mota; emaitza ekonomikoak; ekonomia eta lanaren problematika; etorkizunerako aukerak...</li> <li>. Euskal Estatistika-Erakundeak (EUSTAT) landutako Estatistika-Urtekaria.</li> <li>. Udala bera.</li> <li>. Ekonomian adituak diren herriko pertsona bati edo batzuei (irakaslea, kazetaria, enpresaria...) elkarrizketa egitea.</li> <li>. Lanaren problematikari buruzko inkesta.</li> <li>. Langabezia dauden pertsonen elkarrizketa egitea.</li> <li>. Udal-agintari politiko bati (zinegotzia, alkatea), enpresari bati, langile batzuei eta langabezia dauden pertsona batzuei lanaren eta langabeziaren problematikari buruzko elkarrizketa egitea.</li> <li>. Hemerrotekan eta enpleguari buruzko egunkarietan kontsultatzea.</li> </ul>
<p><b>INFORMAZIOAREN ORDENAZIOA, SAILKAPEN ETA SISTEMATIZAZIOA</b></p>	<p>Lan-talde bakoitzak, jasotako informazioa aukeratu eta ordenatu egingo du. Ondoren komunikazio-truke bat edo bateratze-lan bat egingo da ikerketa-prozesuaren martxari, iritziei eta aurkitutako arazo desberdinei buruz. Aurrerago, jasotako informazioa eta daturik garrantzitsuenen <u>lehen komunikazioa</u> egingo da.</p>
<p><b>ONDORIOAK</b></p>	<p>Jasotako, ordenatutako eta sistematizatutako datu eta informazioen azterketa egin ondoren, talde bakoitzak bere ondorioak atera eta lehen hipotesiekin eta hasierako erantzunekin konparatuko ditu ondo egina, hutsegitea edo hurbilketa egiaztatuz.</p>
<p><b>KOMUNIKAZIOA</b></p>	<p>Talde bakoitzak ikerketa-prozesua garatzeko erabilitako modua, jasotako informaziorik garrantzitsuenak eta ondorioak komunikatu eta aurkezten dizkie gainerakoei.</p> <p>Pertsona bakoitzari gai guztiei buruzko txosten-laburpen bat emango zaio.</p> <p>Talde bakoitzak adierazpen-tresna desberdinak erabiliko ditu, hala nola panelak, diapositibak, bideo-filmazioak, grafikoak eta abar.</p> <p>Oso garrantzitsua da guztiek parte hartzea eta ikaskide guztien lana errespetatzea.</p>

## 6.- EUSKAL HERRIKO POPULAZIOA, EKONOMIA ETA ENPLEGUARI BURUZKO INTERESGARRIAK DATU


### 1993. URTEKO POPULAZIOA

	POPULAZIOA	DENTSITATEA
ARABA	279.702	92
BIZKAIA	1.163.671	525
GIPUZKOA	684.599	343
NAFARROA	528.837	51
LAPURDI	204.598	238
BENABARRE	29.298	22
ZUBEROA	16.298	21

(Iturriak: I.N.E. Espainiako udalerrietako zuzenbidezko populazioa. Biztanleen udal-eroldaren zuzenketa, 1993ko urtarrilaren lean.

I.N.S.E. (Recensement général de la population de 1990. Evolutions démographiques 1975-1982-1990.

1. Ikus ezazu laukitxoak arretaz eta saia zaitetz leku desberdinetan dagoen dentsitate-diferentzia azaltzen duten hiru arrazoi (gutxienez) ematen.
2. Koka itzazu mapan aipatzen diren lekuak.



	JAIOTZAK	HERIOTZAK	EMIGRAZIOA	INMIGRAZIOA
ARABA ´	2.024	1.933	1.890	1.678
BIZKAIA ´	7.991	9.301	7.622	4.889
GIPUZKOA ´	5.269	5.523	4.584	2.987
NAFARROA ´	4.584	4.559	9.048	10.063
IPARRALDEA *			26.372	34.581

(´ 1982-90 aldiari buruzko datuak)

(\* 1994. urteko datuak)

1. Aurreko datuak kontuan izanik, bila ezazu jaiotza-tasa eta heriotza-tasa.
2. Heriotza-tasak jaiotza-tasa gainditzen du. Zein da gertakari honi emango zeniokeen esplikazioa?.
3. Duela urte gutxi arte inmigrazioa emigrazioa baino handiagoa zen Euskal Herrian. Aldaketa hau eragin duten duela gutxiko arrazoiei buruzko iruzkina egin zure ikaskideekin.

### **EKONOMIA-LAN EGITEN DUEN POPULAZIOA PRODUKZIO-SEKTOREEN ARABERA**

	NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
ARABA ´	4.388	39.467	6.765	46.811
BIZKAIA ´	8.871	125.412	29.632	207.796
GIPUZKOA ´	7.329	90.864	17.057	119.739
NAFARROA ´	10.950	54.650	16.250	90.160
IPARRALDEA *	7.804	15.140	7.612	60.780

(´ 1990. urteko datuak)

(\* 1994. urteko datuak)

1. Zure herrian dauden industriak eta aurreko datuak kontuan izanik, adierazitako zein jardueretan barne hartuko zenituzte herriko industriak? Erantzuna arrazoitu.

### **ENPLEGUA**

1. Osa ezazu ondorengo taula:

	POPULAZIO AKTIBOA	LANGABETU-KOPURUA	TASA
ARABA	97.431	19.524	
BIZKAIA	371.711	81.849	
GIPUZKOA	234.989	45.370	
NAFARROA	199.700	27.640	
IPARRALDEA	91.336		

2. Zein da langabetu-tasarik handiena duen lekua? Azal itzazu gertakari honetarako egon daitezkeen arrazoiak.

## 7.- POPULAZIOARI BURUZKO EKINTZAK

Euskal Herriko populazioari buruz hasieran emandako datuak kontsultatuta, osa itzazu ondoko taulak.

	POPULAZIO ABSOLUTUA	DENTSITATEA	JAIOTZAK	HERIOTZAK	ETORKINAK	EMIGRATZAILEAK
ARABA						
BIZKAIA						
GIPUZKOA						
NAFARROA						
IPARRRALDEA						

1. Osa ezazu aurreko taula, ondoren adierazten dena kontuan izanik:

a) Populazio-dentsitatea honela lortzen da

$$\frac{\text{Biztanle kopurua}}{\text{Herriaren hedadura Km}^2\text{tan}} =$$

b) Orain jaiotza-tasa iker ezazu, eta horretarako eragiketa hau egin:

$$\frac{\text{Urte batean jaio direnen kopurua X 1.000}}{\text{Guztizko populazioa}} =$$

c) Heriotza-tasa aurkitzeko, zera erabili:

$$\frac{\text{Urte batean hil direnen kopurua X 1.000}}{\text{Guztizko populazioa}} =$$

d) Hazkunde naturalaren tasa:

$$\frac{\text{Jaio direnen kopurua} - \text{Hil direnen kopurua X 1.000}}{\text{Guztizko populazioa}} =$$



2. Iker itzazu zure herriko populazioaren datuak zure udaletxean. Egin den azken errolda 1996. urtekoa da:

POPULAZIOA	AZALERA	DENTSITATEA

Konpara ezazu zure herriko dentsitatea zure probintzia edo lurralde historikoaren dentsitatearekin.

## 3. Osa ezazu zure herriari dagokion ondoko taula:

POPULAZIOA	JAIOTZA-TASA	HERIOTZA-TASA	HAZKUNDE NATURALEKO INDIZEA

4. Jaiotza-tasaren eta heriotza-tasaren arteko kenketak ematen duen emaitzari hazkunde natural deritzo. Bila ezazu zure herriko hazkunde erreala, kontuan izanik emigratzaileen eta inmigratzaileen arteko diferentzia jaiotzen eta heriotzen arteko diferentziari batu (positiboa baldin bada) edo kendu (negatiboa baldin bada) egin behar diozula. Hazkunde erreal hau indize gisa adierazten da (beste herri batzuekin konparatu ahal izateko), eta beraz zifrak 100ekin biderkatzen baldin badituzu eta ondoren guztizko populazioarekin zatitzen baldin baduzu, hazkunde errealeko indizea lortu duzu, positiboa edo negatiboa izan daitekeena. Zein da zure herriko hazkunde erreala? Zein dira zure herrian egon den hazkunde edo beherapen honen kausa posibleak?
5. Bila ezazu zure herriko egunkari edo aldizkari batean jaiotza edo heriotzei buruzko atala, eta populazioaren hazkunde naturala kalkulatzeko saia zaitez. Heriotza-adinak hartuz, kalkula ezazu guztizkoaren bizitza-adinaren batezbesteko aritmetikoa, bai eta gizonezkoena eta emakumezkoena bananduta ere. Errepresenta ezazu barradun edo puntudun grafiko batean. Zure ondorioak atera eta ikaskideekin hauei buruzko iruzkina egin.
6. Lortutako datuak kontuan izanik, azal ezazu zure herriko populazioaren handitzea edo murriztapena eragiten duten faktoreak edo kausak.
7. Hona hemen Euskal Herriko populazioaren datuak, XX. mendearen hasieratik,

URTEA	POPULAZIOA
1900	603.596
1910	673.788
1920	766.775
1930	891.710
1940	955.764
1950	1.061.240
1960	1.371.654
1970	1.878.636
1975	2.072.430
1981	2.134.967
1986	2.133.002
1991	2.109.009

Adieraz ezazu barra-grafiko batean Euskal Herriko populazioak 1900. urtetik 1991. urtera izan duen bilakaera. Bil zaitezte talde txiki batean eta bila itzazue ondoko kasuen arrazoiak:

- a) 1950etik 1975era bitartean milioi bat biztanletik gorako populazio-gehikuntza izan zen.
- b) 1981etik aurrera populazio-beherakada bat izan da.

Zure herrian ere Euskal Herriaren gainerakoan bezala gertatu al da? Zure erantzuna arrazoitu.

8. Koka ezazu friso historiko batean zure senideen (aitona-amonekin hasi eta anai-arrebekin amaituz) jaiotza-urteak eta gertaera garrantzitsuak. Herrian bertan jaio ziren, beste Erkidego batzuetatik etorri ziren ala, aitzitik, euren jatorrizko lekuetan geratu al ziren?

9. Zehatz itzazu zure ikaskideekin ondoko kontzeptuen esanahia:

- \* Migrazio-mugimenduak:
- \* Inmigrazioa:
- \* Emigrazioa:
- \* V HEURISTIKOA: Erantzun beharreko galdera nagusia: Nire herriko etorkinak herriko gizarte-taldeetan integratuta daude ala, aitzitik, baliabiderik eza nabarmena eta moldagabezi arazo larriak dituzte? Datuak inkesta baten edo dagokion organismoaren bitartez lor ditzakezu (Hiri-zentroa, Udala).

10. Emaiezu inmigrazioaren ondoko arrazoiei 1etik 10era bitarteko balioa:

ARRAZOIAK ETA KAUSAK	balioa
1. Lan finkorik ez izatea	
2. Langabeziak egotea	
3. Arrazoi politikoak	
4. Oso soldata txikia izatea	
5. Abentura bilatzea	
6. Diru gehiago irabazi eta aurrezteko asmoa izatea	
7. Seme-alabei ikasteko aukera ematea	
8. Hiriak aisirako eta dibertimendurako aukera gehiago ematen dituelako	
9. Bikotea bilatzeko	
10. Bestelakoak	

11. Eztabaidatu ezazu ikaskideekin emigrazioaren arrazoiei eta etorkinen arazoei buruz. Duten garrantziaren arabera ordena itzazu.

12. Egin ezazu “etorkinen arazoei” buruzko kontzeptu-mapa bat.



12.- Gaur egun autore desberdinak etorkinen problematikaz arduratu dira eta horrela isladatu dute beren abestietan: Kaxiano (Euskal Herria), Amancio Pradak musika jarri die Rosalía de Castroren (Galicia) hitzei, zeinak dagoeneko aurreko mendean etorkinen egoerari buruz idazten zuten. Etorkinaren bizitza isaladaten duen abestiren baten letra aurkitzen saiatu, edo bestela gai hau tratatzen duten pelikulen zerrenda bat egin.

13.- Entzun ezazu Benito Lertxundiren “Oi ama Euskal Herri goxua...” izeneko abestia (Elkar, Donostia, 1981) eta saia zaitez bere testuaren esanahia azaltzen.

Anaia etxen da ezküntü  
bükatü niz aoian joaitera  
ene opilaren egitera  
Pariserat banüazü

Oi ama Eskual Herri goxua  
zutandik urrun triste banüa  
adios gaixo etxen dena  
adios Xiberua

Pariseko bizitzia  
lan kostürüriaz bagiazü  
bena berantzen zütadazü  
zure berriz ikustia

Oi ama Eskual Herri...

(letra: Exahun Iuri  
Musika: herrikoia)



## 8.- EKONOMIA ETA ENPLEGUARI BURUZKO EKINTZAK

“Herriko populazio aktiboari” buruzko INKESTA bat diseinatu, burutu eta tabulatzea:

- Jendea: Herriko populazio aktiboa
  - Lagina: 16 urtetik 65era bitarteko herriko 100 pertsona
  - Landu beharreko gaiak:
    - pertsonaren gizarte-sektorea: lana duena, lanik ez duena, ikaslea, etxeoandrea.
    - jarduera-mota, heziketa edo koalifikazioa, ikasketak.
    - Ondoko alderdiei buruzko gogobetetze-maila:
      - a) soldata, ordutegia, oporrak, igotzeko aukera...
      - b) enplegua aurkitzeko aukerak...
      - c) ikasketekiko interesa, hauen erabilgarritasun praktikoa...
      - d) Nork egiten ditu etxeko lanak edo lehenespenez honako hauek:
        - plantxatu;
        - erosketak;
        - oheak;
        - garbiketa;
        - bazkaria;
        - etxeko administrazioa;
        - seme-alaben heziketa;
        - gaixoen zaintza;
        - beste alderdi batzuek.
      - e) etxeko lana eta etxetik kanpoko lana bateragarri egiteko aukera, etxeoandrentzako soldata lortzeko beharra...
  - Inkestariak: 2 ikasleko taldeak.
  - Inkosten tabulazioa: 4 ikasleko taldeak.
  - Bateratze-lana.
  - Inkestaren emaitzei buruzko txosten baten aurkezpena. Ondorioak.
  - Problematika honi buruzko eztabaida.
1. Kontsulta itzazu Euskal Herriko populazio aktiboari eta langabetu-kopuruari buruz emandako datuak eta osa ezazu ondoko taula:

Probintzia	16 urtetik gorako langabetuak			Langabezi tasak	
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
Araba	14.300	16.200		%19,7	%36,6
Bizkaia	65.400	57.800		%22,4	%32,4
Gipuzkoa	33.300	36.200		%18,3	%33,2
Nafarroa	13.300	16.500		%10,3	%22,6
Hego Euskadi Guztira	126.300	126.700		%18,7	%31,3

(Iturria: 1994ko 1. hiruhileko populazio aktiboaren inkesta eta Egin urtekaria: Euskadi 1994.) Populazioaren datu globalak behar ditugu, gizonezkoenak eta emakumezkoenak.

2. Txosten labur bat idatzi, eta bertan lurralde desberdinetako langabeziaren egoera eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko diferentziak konparatu.
3. Egin ezazu gauza bera Udaletxean aurki ditzakezun zure herriari buruzko datuekin. Zein egoeratan dago zure herria Euskal Herriko batezbestekoarekin konparatuta?.
4. Osa ezazu ondoko sektore ekonomikoei dagokien taula hau:

	NEKAZARITZA	ERAIKUNTZA	INDUSTRIA	ZERBITZUAK
<b>ARABA</b>				
<b>BIZKAIA</b>				
<b>GIPUZKOA</b>				
<b>NAFARROA</b>				
<b>IPARRALDEA</b>				

5. Bila itzazu zure herriko sektore ekonomikoei buruzko datuak eta osa ezazu aurrekoaren antzeko taula bat.

Populazioaren banaketa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Guztira
Lana dutenak	86.500	347.500	222.000	172.200	
Langabetuak	30.500	123.200	69.500	29.800	
Ikasleak	26.000	106.800	68.100	45.200	
Jubilatu eta pentsiodunak	37.800	182.000	87.300	84.700	
Lanerako ezinduak	4.200	32.800	19.900	8.500	
<b>GUZTIRA</b>					

6. Egin ezazu gogoeta eta eztabaida ezazu ikaskideekin gazteen langabeziaren eta langabezia orokorraren problematika sozial eta indibidualari buruz.
7. Hazkunde ekonomiko handiaz gain, bestelako zein posibilitate bururatzen zaizkizu langabezia murrizteko.
8. Emaiezu 1etik 10era bitarteko balioa langabeziaren arazoa konpontzera zuzendutako ondoko proposamenei:

- . Jubilazio aurreratuak.
  - . Opor luzeagoak.
  - . Soldata txikiagoa (etekinak gehitzeko eta enplegua sor lezakeen inbertsioa errazteko)
  - . Lanordu-kopurua murriztea, eta lan-jarduna osatzeko pertsona berriak kontratatzea.
9. Hitz egin ezazu ikaskideekin ondoko esaldiari buruz: "Lana elkartasunez banatu beharreko ondasun urria da".
10. Egin ezazu langabeziaren arazoei buruzko kontzeptu-mapa bat.